

The background features a large, abstract graphic design. It consists of several overlapping, semi-transparent shapes in shades of light green and white. The shapes are geometric, including rectangles and trapezoids, and are arranged in a way that creates a sense of depth and movement. The overall effect is clean and modern.

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Euskal Herriko Unibertsitatea

Universidad del País Vasco

2018





ÍNDICE/AURKIBIDEA

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 Legeak betetzeari buruzko iritzia	8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia	8
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	9
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea.....	9
III.2 Administrazioiko kontratazioa.....	11
III.3 Beste batzuk	13
III.4 Fundazioak.....	13
IV. FINANTZAREN ANALISIA ETA AURREKONTUAREN EGONKORTASUNA.....	15
IV.1 Finantzaren analisisa.....	15
IV.2 Aurrekontuaren egonkortasuna eta finantzaren iraunkortasuna.....	17
V. URTEKO KONTUAK	18
V.1 EHU	18
V.2 Fundazioak.....	21
ERANSKINAK	23
A.1 Alderdi orokorrak	23
A.2 Aurrekontua eta kontabilitatea	24
A.3 Langileria-gastuak.....	26
A.4 Funtzionamendu-gastuak	33
A.5 Inbertsio errealak, ibilgetua eta ondarea	33
A.6 Tasak eta bestelako sarrerak	36
A.7 Jasotako transferentzia arruntak eta kapitalezkoak	38
A.8 Aldi bateko finantza inbertsioak	39
A.9 Zorra	39
A.10 Zordunak.....	40
A.11 Hartzekodunak	41
A.12 Diruzaintza eta ondare sarrerak	42
A.13 Aurrekontu eta ondare emaitzaren arteko berdinkatzea	42
A.14 Administrazioiko kontratazioaren analisisa	43
A.15 Fundazioak	47
ALEGAZIOAK	51



ABREVIATURAS	67
I. INTRODUCCIÓN	69
II. OPINIÓN	70
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de legalidad	70
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales	70
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL	
INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	71
III.1 Presupuesto y contabilidad	71
III.2 Contratación administrativa	73
III.3 Otros	75
III.4 Fundaciones	75
IV. ANÁLISIS FINANCIERO Y ESTABILIDAD PRESUPUESTARIA	77
IV.1 Análisis financiero	77
IV.2 Estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera	79
V. CUENTAS ANUALES	80
V.1 UPV/EHU	80
V.2 Fundaciones	83
ANEXOS	85
A.1 Aspectos generales	85
A.2 Presupuesto y contabilidad	86
A.3 Gastos de personal	88
A.4 Gastos de funcionamiento	95
A.5 Inversiones reales, inmovilizado y patrimonio	95
A.6 Tasas y otros ingresos	98
A.7 Transferencias corrientes y de capital recibidas	100
A.8 Inversiones financieras temporales	101
A.9 Deuda	101
A.10 Deudores	102
A.11 Acreedores	103
A.12 Tesorería e ingresos patrimoniales	104
A.13 Conciliación resultado presupuestario-patrimonial	105
A.14 Análisis de la contratación administrativa	106
A.15 Fundaciones	110
ALEGACIONES	115



LABURDURAK

APKLE	Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra.
AZL	Administrazio eta zerbitzuetako langileak.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
BGAE	Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EAOL	6/2018 Legea, uztailaren 3koa, 2020ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
ED	Errege Dekretua.
EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.
EHJAN	Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Gorena.
EHU	Euskal Herriko Unibertsitatea.
EJ	Eusko Jaurlaritza.
EOL	Euskadiren Ondareari buruzko Legea (2/2007 Legegintzako Dekretua, azaroaren 6koa, Euskadiren Ondareari buruzko Legearen Testu Bategina onartzeko dena).
EEP	Enpleguaren Eskaintza Publikoa.
EUSL	3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoa.
FEDER	Eskualdearen Garapen Ekonomikorako Europako Funtsa.
GET	Goi Eskola Teknikoa.
IGET	Ingeniaritzako Goi Eskola Teknikoa.
II	Irakasleak eta ikerlariak.
LZ	Lanpostuen zerrenda.
SPAJL	40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.
SPKL	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onesten duena.
TVCP/HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
UE	Unibertsitate Eskola.
ULO	6/2001 Lege Organikoa, abenduaren 21ekoa, Unibertsitatei buruzkoa.
ULOALO	4/2007 Lege Organikoa, apirilaren 12koa, Unibertsitatei buruzko Lege Organikoa aldarazten duena.
USP	Unibertsitate Sistemaren Plana.
UUKK	Urteko kontuak.
XG	Xedapen Gehigarria.
ZBM	Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa.



I. SARRERA

EHUren ekonomia eta finantza jardueraren 2018ko txosten hau Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren 1/1988 Legeari jarraikiz mamitu dugu eta Epaitegi honen Urteko Lan Programan barne hartua dago.

Alderdi hauek aztertu ditu fiskalizazioak:

- Legezketasuna: aurrekontu, kontabilitate, langileria eta administrazioko kontratazioaren ataletan.
- Kontularitza: EHUren urteko kontuak aplikagarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu diren aztertuko dugu.
- Gure lana izan da kanpoko enpresa batek gauzatutako EHUren Urteko Kontuen auditoretzako txostena aztertzea eta horretarako, auditoreen lan paperetan kontuak euskarrituak daudela egiaztatu dugu eta beharrezko iritzitako proba osagarriak edo auditoretzako beste zenbait prozedura bideratu ditugu.
- EHUren finantza-analisia.
- Lanean ez da jaso gastuaren efikaziari eta efizientziari buruzko analisia. Hala ere, aurkitu diren hutsak «Barne kontroleko sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko gogoetak» epigrafean azaldu dira xehetasunez.

Gainera, lanaren zabalak EHUk fundazio-zuzkiduraren % 100 eman dien fundazioen gaineko fiskalizazio-lana barne hartu du; hona hemen zeintzuk diren:

- Medikuntza eta Zientzien Historiaren Euskal Museoa Fundazioa.
- EHUren Uda Ikastaroak Fundazioa

Bestalde, Txosten ekonomikoaren eranskinak Jakintza Lanezko Ikerkuntzaren (Euskoiker Fundazioa) Urteko Kontuak ere jaso ditu. EHUk Euskoiker Fundazioaren zuzkiduraren % 50 jarri du



II. IRITZIA

II.1 LEGEAK BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Langileria

1. EHUK 2018ko ekitaldian 588.881 euro ordaindu ditu osagarrien eta ordainsarien parekatze kontzeptuan, unibertsitateko irakasleen ordainsariei buruzko abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuan aurreikusi gabe daudenak (ikus A.3).
2. 2018ko abenduaren 31n aldi baterako lan kontratua zuten Irakasle eta Ikerlariak irakasle-plantillaren % 40ko muga gainditu dute, ULoren 48.5 artikuluan finkatutakoa, ULOALOK ematen dion idazkeran.

Administrazioko kontratazioa

3. Hornidura eta zerbitzu jakin batzuetarako kontratuen lizitazio eta esleipenean izandako atzerapenak eragin du 2018an 5,6 milioi euroren gastuak aitortu izatea iraungitako kontratuen kontzeptuan (ikus A.14.1 eta A.14.2).

Bestalde, 2018ko ekitaldian kontratua indarrean zuen hornidurako kontratu batean, esleitutako zenbatekoa 228.474 euroan gainditzen duten gastuak azaleratu dira (ikus A.14.1).

Epaitegi honen ustetan, aurreko 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan azaldutako salbuespenak alde batera, EHUK eta bere fundazioek zuzentasunez bete dute 2018ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Berriazko geldikina osatzen duten aurrekontuko aplikazio ugarien eta ikerkuntza kontratuen amaieraren gaineko kontrol ezaren ondorioz (ikus III.1), ezin ondorioz atera dezakegu 2018ko abenduaren 31ko kontuen zuzentasunaz. Nolanahi dela ere, Kontua osatzen duten kontu-sail eta programen lagin bat aztertzetik ondorioztatu dugu horietako zenbaiti Gastu Orokorretarako Geldikin izaera eman behar litzaiekeela. Ondare-kontabilitateko terminoetan, horrek esan nahi du "Dirulaguntza bihur daitezkeen epe laburreko zorrak" balantzeko kontu-sailaren saldo zati batek (ikus A.11), zenbatetsi ezin denak, ondare garbiaren atal behar lukeela izan.

Epaitegi honen iritzira, 1. paragrafoan adierazitako salbuespena alde batera, EHUren eta bere fundazioen Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2018ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa, 2018ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak eta kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

Aurrekontuko aldaketak

- Aurrekontuko aldaketen erregimena baliatuta, 2018ko aurrekontuan 12,3 milioi euroren kredituak zuzkitu ziren eta ekitaldi itxieran kopuru hori kapituluan jaso gordetzen zen aurrekontuko kontu-sail jakinei esleitu gabe. Hona hemen xehapena:

KAPITULUA	Euroak milakotan			
	TXERTAKETAK	GAIKUNTZAK	TRANSFERENTZIAK	GUZTIRA
Langileria-gastuak	6.038	101	5.102	11.241
Funtzionamendu-gastuak	6.242	449	(5.627)	1.064
Transferentzia arruntak.....	4	-	-	4
Inbertsio errealak.....	936	-	(922)	14
GUZTIRA	13.220	550	(1.447)	12.323

Aldaketa horiek berariazotasun printzipioa urratzen dute, zeinaren arabera haien eraginpeko aurrekontuko kontzeptuak zeintzuk diren berariaz adierazi behar duten.

- 2018ko ekitaldian 8,4 milioi euroren kreditu-transferentziak egin dira eta horiei birbanaketentzat aurreikusita dagoen izapide erraztua ezarri zaie; ez zegokion, baina, araubide erraztu hori baliatzea, aurrekontuko kapitulu ezberdinen artean egin direlako kreditu aldaketak.
- Aurrekontuko aldaketak arautzen dituen araudiari jarraikiz, 2018ko aurrekontuarekin batera onartutakoa, hiru hilean behin Ekonomia Batzordeari gaitutako kredituen xehapena jasotzen duen zerrenda aurkeztu behar zaio. 2018ko ekitaldiko gaikuntzak 2019ko apirilaren 11ko Ekonomia Batzordeari aurkeztu zaizkio.

Gastu Unitate Organikoak

EHUK kudeaketa Gastu Unitate Organikoetan deszentralizatzen du; unitate horiek aurrekontuaren kudeaketaz, kontabilizazioaz eta horiei lotutako gastuak euskarritzen dituzten agiriez arduratzen dira. Deszentralizazio maila honek zaildu egiten du gastua zuzen kontabilizatzea eta ondorengo kontrola egitea. 2018ko abenduaren 31n GUO kopurua 3.732koa zen eta horietatik 3.482, nagusiki, ikerkuntza, kanpoko kontratu edo kanpoko ekarpenekin finantzaturako ikastaroenak dira. Honekin baterako taulak funtzionamendu gastuek eta inbertsio errealek azken ekitaldietan izan duten bilakaera erakusten du, unitate mota hauen bidez kudeatu direnak:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	2016	2017	2018
2 eta 6 kap. gastuak, Gtu.Unit.Organiko zentralak kudeatutakoak	61.898	60.146	60.955
2 eta 6 kap. gastuak, Gtu.Unit.Organiko zentralak kudeatutakoak ikerketa-proiektu, kontratu eta ikastaroenak	18.827	23.322	22.841
2 ETA 6 KAPITULUETAKO GASTUAK GUZTIRA	80.725	83.468	83.796

Aurrekontua eta Ekonomia Txostena onestean atzerapena

Gobernu Kontseiluak 2018ko ekitaldiko Aurrekontu Proiektua 2018ko otsailaren 1ean onartu zuen eta Kontseilu Sozialak aurrekontua urte horretako martxoaren 21ean onartu zuen; ordea, ekitaldia hasi aurretik onartu behar zatekeen. Ekonomia txostenari dagokionez, Kontseilu Sozialak 2019ko urriaren 16an onetsi zuen, EUSLren 106.2 artikuluan aurreikusitako epea gaindituta, urte bakoitzaren lehenengo seihilekoan egitea aurreikusten baitu.

Dirulaguntzen erregistroa

Unibertsitateak ez du jasotzen dituen dirulaguntzak kontrolatzeko sistema bat, zein dirulaguntzak finantzatzen dituzten aktibo finkoak eta zeinek gastu arruntak bereizteko bide emango diona; honenbestez, ezin identifikatu izan ditugu ekitaldiko emaitzaren kontuan diru-sarreretan dauden dirulaguntzak, zeinak egozteko dauden ondare-igoeretan egon behar bailukete, bi-biak ere Ondare garbiko idazpuruak.

Berariazko Geldikina (ikus A.2)

EHUK aurkeztutako txosten ekonomikoaren arabera, berariazko geldikina 69 milioi euro zen 2018ko abenduaren 31n, eta haren % 48,2 ikerketa programen “Funtzionamendu gastuak” izeneko kapitulari dagokio, zeinak kanpoko finantzaketa bidez gauzaturako ikerketa kontratuak jasotzen baititu.

Geldikina osatzen duten kontu-sail eta programen lagin esanguratsua aztertuta, honako huts hauek azalera dira:

- Errepikariak diren kanpoko kontratuei dagozkien zenbatekoak ekitaldiz ekitaldi gero eta handiagoak dira, jasotako finantzaketak kontratuaren kontura egikaritutako gastua gainditzen baitu.
- Itzultzeko dauden dirulaguntza soberakinak; ez dago horien osaera eta saldoaren antzintasunaren xehetasunik.
- Proiektu zaharren geldikinei dagokienez (lehenagoko ekitaldietan abiarazitakoak) exekuzio egoera eta ikerketa kontratuaren azken egoera aztertu beharko litzateke, izan ere EHUren Estatutuen 233.3 artikuluari jarraikiz (aurrerantzean Estatutuak), geldikin hauek berariazko izaera galduko dute egotzi zitzairen jarduera amaitu eta hurrengo ekitaldia bukatzen denean.



Barne kontrola

EHUren Estatutuen 238 artikulua agintzen du unibertsitateak gastu eta sarreraren barne kontrola ziurtatuko duela legezatasun, eraginkortasun eta efizientzia printzipioei jarraiki eta horretarako, Barne Kontrolerako Zerbitzua baliatuko duela, errektorearekiko mendekotasun zuzena eta gerentziarekiko autonomia funtzionala izango duena.

Barne Kontrolerako Zerbitzuaren jarduteko urteko planek EHUren gastu eta sarreraren gaineko azterketa mugatua aurreikusten dute. Hori dela eta, Barne Kontrolerako zerbitzua indartzeko gomendioa luzatzen dugu eta Gastu Unitate Organiko guztien gaineko eskumena izango duen gastuen alde aurretiko kontu ikuskaritza egiteko figura sortzekoa, figura hau duten gainerako erakundeen izaera, ezaugarri eta egiteko antzekoekin, duen izaerari dagokion izen edo egitura emanez.

Langileria

- 2017ko abenduaren 14an EHUren Gobernu Kontseiluak Irakasle eta Ikerlari lan kontratupeko eta funtzionarioen LZ gaurkotzea onartu zuen, baina ez da EHAAn argitaratu. Gainera, 2018ko ekitaldian Gobernu Kontseiluak Irakasle eta Ikerlarien Lanpostu Zerrendan hainbat aldaketa onartu ditu, zeinak txosten hau idatzi dugun datan ez baitira EHAAn onartu. Irakasle eta Ikerlarien LZren azken argitalpena 2015eko uztailaren 23koa da.
- EHUko berezko tituluetan, EHUko irakasleek emandako irakaskuntza eta praktiken tutoretza ordaintzen da tituluaren oroitidazkian jasotakoaren arabera. Gomendagarria da EHUko irakasleei egiten zaizkien ordainketak, kanpoko irakasleekin jokatzeko moduan, irakaskuntzako likidazio-agiri batekin egitea, titulu propioaren zuzendari akademikoak izenpetuta, eta irakasle bakoitzak titulu propioetan orduko kobratzen duen prezioari muga jartzea balio-neurtzea.

III.2 ADMINISTRAZIOKO KONTRATAZIOA

2018an esleitutako 17 kontratazio-espeditu dira (guztira 35,9 milioi euroren esleipen-balioa zutenak) eta aurreko urteetan esleitutako beste 10 espeditu, 2018an 19,7 milioi euroren egikaritza izan dutenak. Honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu (ikus A.14.1):

- SPKL indarrean sartu ostean abiarazitako espedituak ez dira elektronikoki izapidetu.
- EHUren Arabako Campuseko zenbait eraikinetan zaharberritze lanak egiteko espedituan, 245.908 euroan esleitutakoan (1. espeditua), ez dira betetzen SPKLren 159.3 artikulua proposamenak aurkezteko ematen dituen gutxienerako epeak.
- Hiru campusetarako ikerketa-animaliak erosteko esparru-akordioko espedituan, zeina 302.500 euroan esleitu baitzen (4. espeditua), ez dira zehaztu esparru-akordio honetatik eratorritako kontratuak esleitzeko irizpideak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Guztira 734.446 euroan esleitutako hiru espedientetan (7, 8 eta 17 espedienteak), administrazio-klausula partikularren agiriez ez dituzte xehatzen gastu zuzenak, zeharkakoak, bestelako behin-behineko gastuak eta kasua bada, soldaten kostua; honenbestez, ez da justifikatzen lizitazioako oinarriko aurrekontua merkatuko prezioetara egokitzen denik.
- Guztira 13,8 milioi euroan esleitu eta 2018an 3 milioi euroan egikaritutako lau espedientetan (2, 4, 19 eta 20 zk. espedienteak) ez dago jaso esparru-akordioaren arabera egindako esleipenen harrera-akta.
- Springer argitaletxearen aldizkako argitalpen elektronikoak hornitzeko espedienteak, 446.246 milioi euroan esleitu zena (9 zk. espedienteak), eksklusibotasunagatik publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitu zaio banaketa eskubideak zituen argitaletxeari. Espedientean dokumentatu egin beharko litzateke argitalpen elektroniko horien interesgarritasuna.
- EHU_n UNIVERSITAS XXI-Ekonomikoa aplikazioa mantentzeko espedienteak publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitu zen 265.830 euroren zenbatekoan (17. espedienteak) eta zerbitzu honen memoriak justifikatzen du zerbitzu hau soilik egin dezakeela aplikazioen esleipendunak. Aplikazioen erosketa/berritzea mantentze lanekin batera lizitatu beharko litzateke.
- 2016 eta 2017ko ekitaldietako EHUren urteko kontuen kanpoko auditoriaren espedientearen xedean -136.000 euroan esleitutakoan (27. espedienteak)- ez dira jaso proiektuen auditorienak diren prestazioak eta beste, espediente honen esleipendunak 2018ko ekitaldian 106.501 euroan emandakoak. Auditoriako espedientean lizitazio aurrekontuaren zati bat aleko prezioekin bereiztea gomendatzen dugu, proiektuen auditorietarako.
- Horrez gain, 2018ko ekitaldian izaera bertsuko ondasun eta zerbitzu erosketak gauzatu dira, guztira 4,7 milioi eurorenak; gure iritzira, aztertu egin beharko lirateke eta homologatu daitezkeen hornidurak eta aurreikus daitezkeen zerbitzuak identifikatu, hartara kontratazioa prozedura bakar batean egin ahal izateko (ikus A.14.2).
- EHUK ez du kontratu txikien administrazioko kudeaketa osoa egiteko bide emango duen informatikako erremintarik, hau da, eskabidea jasotzen denetik kontratu txikiaren ordainketara artekorik, eta ez du kontratatzailearen profilean argitaratzen kontratu txikiei buruzko informazioa (helburua, iraupena, esleipenaren zenbatekoa eta esleipendunaren identitatea).
- Azkenik, azpimarratu behar da gastu-unitate organikoen sakabanatzea aintzat hartuta, beharrezkoa dela EHUK gastuaren egikaritzaren ikuskapena areagotzea, erosketa eta prestazioek legezko estaldura egokia izan dezaten eta, berez, ez dadin gainditu esleipenaren zenbatekoa.
- EHUK 2018an zerbitzu publikoak emateko 16 espediente gauzatu ditu; zerbitzu publiko horiek emateko jabari publikoko ondasunak erabili behar dira; horiek, baina, ez ziren denbora zehatz baterako eman. Gainera, kontratuaren prestazioak eta prezioa



justifikatuko duen azterketa ekonomiko eta administratiborik ez da egin; ez eta ondasunak eskura uzteko akta ere, EHUK eta kontratistak izenpetutakoa (ikus A.14.2).

Lankidetzak hitzarmenak

2018an EHUK izenpetutako 21 lankidetzak hitzarmenak aztertutik, honako hau azaleratu da:

- Lau hitzarmenetan ez dira zenbatetsi EHUri dagozkion konpromiso ekonomikoak. Hona hemen hitzarmen horiek: "Zahartze osasungarria eta bizi-kalitatea"ri buruzko ikerketa-proiektu bat garatzekoa; Bilbao Art District-en esparruan esku-hartze artistiko bat egitekoa; "Udal etxebizitza solidarioak" programa garatzekoa; eta beste bat Bilbao Kirolak-ekin izenpetutakoa.
- Bi hitzarmenetan: bat Kirolgi Fundazioarekin ikerketa eta kirolariak prestatzeko eta beste bat Francisca Vargas Zentroan kirola egiteko, ez da iraupen jakin bat zehaztu, zeina ezin baita 4 urtetik gorakoa izan.
- Bost hitzarmenetan ez dago egikaritzaren eta sinatzaileek hartutako konpromisoen gaineko jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko inongo baliabideren aurreikuspenik, sor daitezkeen interpretazio eta hitzarmenak betetzeko arazoak konponduko dituenik; hona hemen hitzarmenak: bat "Biscay Bay Startup Campus 2018" proiektua babesteko; bi "UPV/EHU itsasoan" erakusketa finantzatzeko; beste bat Bilbao Art District-en esparruan esku-hartze artistiko bat egiteko; eta beste bat Bilbao Kirolak-ekin egindakoa.

III.3 BESTE BATZUK

- Merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen uztailaren 5eko 15/2010 Legeak eskatutako informazioari dagokionez, eta abenduaren 22ko 1040/2017 Errege Dekretuak aldarazitako uztailaren 25eko 635/2014 ED aplikatuz, zeinak administrazio publikoetako hornitzaileei batez besteko ordainketa aldia kalkulatzeko metodologia garatzen baitu, EHUK 2018ko ekitaldian bete du merkataritzako eragiketen batez besteko ordainketa aldia. Nolanahi den ere, guztira 2,7 milioi euroren zenbatekoan egindako 330 ordainketak ez dute betetzen SPKLk agindutako ordainketa-epea.

III.4 FUNDAZIOAK

- EHUren Uda Ikastaroak Fundazioak eta Medikuntza eta Zientzien Historiaren Museoaren Fundazioak nor bere estatutuetan jaso behar luke EHUri atxikiak daudela, HAAJLren 129. artikuluan xedatutakoa betez.
- EHUren 2018ko ekitaldiko Txosten Ekonomikoaren eranskinean Medikuntza eta Zientzien Historiaren Museoaren Fundazioaren jardueren oroitidazkia eta sarrera eta gastuen likidazioa barne hartzen da. Alabaina, ez dira barne hartu Fundazioaren balantzea eta emaitzen kontua.
- EHUren Uda Ikastaroak Fundazioaren espediente batean ez dago justifikatua aldi baterako langileen kontratazioak salbuespenezko egoera izan eta premiazko eta



ezinbesteko beharrizanei erantzuten dienik, EAOLen 30.3 xedapen gehigarriak agintzen duen moduan. Langileen kudeaketari dagokionez, Patronatuak eskuordetuta zuzendaritzak hartutako erabakiak agiri bidez erasota utzi behar lirateke.

- Eta gainera, Miramar Jauregia Partzuergoaren eta Uda Ikastaroak Fundazioaren arteko harremana formalizatzea gomendatzen dugu (instalazioen erabilera, tarifak...).

Aztertutako kontratuetako akatsak (ikus A.15.2)

EHUren Uda Ikastaroak Fundazioak 2018an esleitutako 3 kontratazio-espeditente aztertu ditugu, guztira 736.137 euroan esleitutakoak, eta aurreko urteetan fiskalizatutako 2 espeditente, 2018an 115.034 euroren egikaritzza izan dutenak. Honako alderdi hauek nabarmendu ditugu:

- Bidaiak antolatzen dituzten enpresak kontratatzekeo esparru-akordioan, zeina 528.000 euroan esleitu baitzen, pleguak ez ditu alde aurretik finkatzen esparru-akordiotik eratorritako kontratuak esleitzeko irizpideak.
Gainera, espeditente honen iraupenak (4+2 urte) gaintu egiten du esparru-akordioetarako arautegiak aurreikusten duen 4 urteko epea (1. espeditentea).
- Guztira 169.140 euroren zenbatekoan esleitutako argitalpen eta inprenta zerbitzuak (2 zk. espeditentea) ez du betetzen aurreikusitako aldaketetarako bereizten diren mugak eta baldintzak modu argi eta zehatzean zehazteko eskakizuna.
- Uda Ikastaroak Fundazioaren webgunea kudeatu eta hobetzeko plataformako txostenak sortzeko zerbitzua formalki dagokion kontratazio-espeditentea izapidetu gabe kontratatu da, nahiz eskusibotasunagatik lehiatik salbuetsitakotzat jo daitekeen; zerbitzu honengatik 38.997 euro fakturatu ziren 2018an (3. espeditentea). Aplikazioen erosketa mantentze lanekin eta horien hobekuntzekin batera lizitatu beharko litzateke.



IV. FINANTZAREN ANALISIA ETA AURREKONTUAREN EGONKORTASUNA

IV.1 FINANTZAREN ANALISIA

EHU-REN KONTUAK

Azken ekitaldietako bilakaera finantzaria honakoa izan da:

	Euroak milakotan		
	2016	2017	2018
Tasak.....	36.320	37.108	35.233
Kanpoko kontratuak.....	6.920	8.370	8.423
Bestelako sarrerak	4.272	4.312	3.598
Transf. arruntak EAE, urteko gastuaren finantzaketa.....	254.807	257.587	258.908
Transf. arruntak Bestelako dirulaguntza helburudunak.....	112.472	89.161	90.588
Ondare-sarrerak	893	883	928
SARRERA ARRUNTAK	415.684	397.421	397.678
Langileria-gastuak	(321.825)	(329.980)	(337.033)
Funtzionamendu-gastuak	(64.029)	(64.020)	(63.792)
Gastu finantzarioak	(427)	(278)	(788)
Transferentzia arruntak.....	(5.942)	(7.426)	(7.972)
GASTU ARRUNTAK	(392.223)	(401.704)	(409.585)
EMAITZA ARRUNTA	23.461	(4.283)	(11.907)
Kapital transferentziak (sarrerak-gastuak)	5.692	23.362	28.234
Inbertsio errealak (besterentzeetatik garbi).....	(16.696)	(19.448)	(20.004)
KAPITAL ERAGIKETEN EMAITZA	(11.004)	3.914	8.230
Pasibo finantzarioak (sarrerak-gastuak)	(2.608)	(2.624)	(1.816)
Aktibo finantzarioak (sarrerak-gastuak).....	3.054	-	-
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK	446	(2.624)	(1.816)
EKITALDIAREN EMAITZA	12.903	(2.993)	(5.493)
EKITALDI ITXIEN EMAITZA	(4.275)	(815)	(3.146)
AURREKONTUAREN EMAITZA	8.628	(3.808)	(8.639)
BERARIAZKO GELDIKINA	77.333	75.555	68.990
GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA	3.852	2.040	180
DIRUZAINZAKO GELDIKINA	81.185	77.595	69.170
ZORPETZEA	17.947	18.795	18.039



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Emaizta arrunta

2018ko sarrera arruntak ia 2017ko berberak dira eta gastu arruntak 7,9 milioi euro areagotu dira 2017koen aldean (% 2), batik bat langile-gastuak 7,1 milioi euro igo direlako, ekitaldian batez besteko soldaten igoeraren ondorioz (% 1,625) eta langile-plantillako aldaketan ondorioz.

Honegatik guztiagatik, emaitza arrunta 4,2 milioi euroren galera izatetik 2017an, 11,9 milioi euroren galera izatera aldatuko da 2019an.

Kapital-eragiketak

Fiskalizazio-gai izan den ekitaldian 4,9 milioi euro egin dute gora kapitalezko transferentziek eragindako sarrerek eta inbertsio errealek bere horretan eutsi diote; ondorioz, kapitalezko eragiketen superabitak 4,3 milioi euroren igoera izan du, 3,9 milioi euroren superabita izatetik 9,2 milioikoa izatera aldatu baita.

Zorpetzea

EHUK ez du 2018an zorpetu beharrik izan, azken 7 ekitaldietan bezala (ikus A.9). 2016ko aldean izan duen igoeraren arrazoia da 2017az geroztik ikerketa-proiektuak zati batean finantzatzeko FEDER laguntzak aurrerakin itzulgarri modura erregistratu izatea.

Diruzaintzako geldikina

2018an diruzaintza geldikina 8,4 milioi euro murriztu da 2017koaren aldean, izan ere behera egin du berriazko geldikinak eta gastu orokorretarako geldikinak.

Ondorioa

Emaizta arruntak behera egin du, batik bat bere horretan eutsi zaielako sarrera arruntei eta langile-gastuek gora egin dutelako. Kapitalezko eragiketengatik emaitzak gora egin du, nagusiki, kapital-transferentziek ere egora egin dutelako. Honenbestez, inbertsioak etorkizunean egin ahal izatea finantzaketa eskuratzeko gaitasunaren baitakoa da, dela kapitalezko dirulaguntza bidez, dela berriz zorpetzera jota.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV.2 AURREKONTUAREN EGONKORTASUNA ETA FINANTZAREN IRAUNKORTASUNA

Unibertsitateen Lege Organikoaren 81. artikulua, 2. atalean agintzen du unibertsitateen aurrekontuek eta horien likidazioek berariazko aipamena egin behar diotela finantza oreka eta iraunkortasun printzipioak betetzeari.

Komeni da azpimarratzea Estatuko Administrazioaren Kontu Hartzaitza Nagusiak adierazi duela EHU, EAEn Administrazio Publikoak Sektorearen atal dela. EHUren 2018ko urterako Urteko Kontuek gai honi buruzko berariazko atala besarkatzen dute eta bertan ondorioztatzen da “EHUren 2018ko ekitaldiari dagokion aurrekontuaren likidazioak finantza oreka eta iraunkortasun printzipioak betetzen dituela”.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 EHU

A. 2018-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

KAPITULUAK	HASIERAKO		ALDAK.	B.BETIKO AURREK.	ESKUB./ OBLIGAZ.	KOBR./ ORDAINK.	KOBR./ORDAIN. GABE	% EXEK.
	ERANSK.	AURREK.						
DIRU-SARRERAK								
3. Tasak eta bestelako sarrerak	A.6	48.740	5.156	53.896	47.254	44.347	2.907	87,7
4. Transferentzia arruntak	A.7	358.589	18.011	376.600	349.496	305.336	44.160	92,8
5. Ondare-sarrerak	A.12	480	460	940	928	789	139	98,7
7. Kapital-transferentziak	A.7	2.000	2.103	4.103	28.234	19.906	8.328	688,1
8. Aktibo finantzarioen bariazioa ...		-	72.565	72.565	-	-	-	-
9. Pasibo finantzarioen bariazioa....		-	-	-	824	822	2	-
SARRERAK GUZTIRA		409.809	98.295	508.104	426.736	371.200	55.536	84,0

GASTUAK

1. Langileria-gastuak	A.3	316.258	48.014	364.272	337.033	336.924	109	92,5
2. Funtzionamendu-gastuak	A.4	70.658	29.342	100.000	63.792	57.042	6.750	63,8
3. Gastu finantzarioak		166	629	795	788	313	475	99,0
4. Transf. eta gtu. arrun dirulag.		2.133	8.372	10.505	7.972	7.721	251	75,9
6. Inbertsio errealak	A.5	18.007	11.815	29.822	20.004	14.994	5.010	67,1
8. Aktibo finantzarioen bariazioa ...		70	-	70	-	-	-	-
9. Zorraren amortizazioa	A.9	2.517	123	2.640	2.640	2.640	-	100,0
GASTUAK GUZTIRA		409.809	98.295	508.104	432.229	419.634	12.595	85,1

EKITALDI ITXIEN BILAKAERA (*)

Euroak milakotan

	HASIER.	BALIOG.	KOBR./	AZKEN
	ZORRA		ORDAIN.	ZORRA
ZORDUNAK	85.932	(3.146)	(68.973)	13.813
HARTZEKODUNAK	(12.754)	-	12.559	(195)
GUZTIRA	73.178	(3.146)	(56.414)	13.618

(*) HKEEk mamitutako taula EHUk emandako datuak abiaburu hartuta.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

C. DIRUZAINZTA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza Geldikina 2017.12.31n	77.591
Eskubide aitortuak	426.736
Obligazio aitortuak	432.229
EKITALDIAREN EMAITZA	(5.493)
Eskubide kitatuak baliogabetzea	(3.146)
Obligazio aitortuak baliogabetzea	-
EKITALDI ITXIEN EMAITZA	(3.146)
AURREKONTUAREN EMAITZA	(8.639)
KAUDIMENGABEZIETARAKO ZUZKIDURAREN BARIAZIOA	218
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	(8.421)
DIRUZAINZTA GELDIKINA 18.12.31N	69.170
BERARIAZKO GELDIKINA	68.990
GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA	180

D. DIRUZAINZTA GELDIKINA GAUZATZEA	Euroak milakotan
Diruzaintza (A.12).....	28.228
Zordunak.....	80.191
Indarreko ekitaldiko aurrekontuko zordunak (A.10).....	55.536
Ekitaldi itxietako aurrekontuko zordunak (A.10)	13.813
Aurrekontuz kanpoko kontu zordunak (A.10)	15.452
Zalantzako kobragarritasunekoak (A.10).....	(4.610)
Hartzekodunak	(39.249)
Indarreko ekitaldiko aurrekontuko hartzekodunak (A.11)	(12.595)
Ekitaldi itxietako aurrekontuz kanpoko zordunak (A.11)	(195)
Aurrekontuz kanpoko kontu hartzekodunak (A.11)	(26.459)
DIRUZAINZTA GELDIKINA 2018.12.31N	69.170



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

E. EGOERAREN BALANTZEA 2018 eta 2017ko abenduaren 31n Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSKINA	18.12.31	17.12.31	PASIB.	ERANSKINA	18.12.31	17.12.31
AKTIBO EZ ARRUNTA		1.200.631	1.216.162	ONDARE GARBIA		1.160.607	1.171.716
Ibilgetu ukiezina.....	A.5	3.940	4.299	Ondarea	A.5	1.102.694	1.102.694
Ibilgetu materiala	A.5	1.193.050	1.208.109	Sortutako ondarea.....	A.5	4.050	14.097
Finantza-inbertsioak epe luzera	A.8	3.641	3.754	Egozteko dauden ondare gehikun..	A.5	53.863	54.925
AKTIBO ARRUNTA		107.233	118.248	PASIBO EZ-ARRUNTA		19.335	20.541
Izakinak		1.196	1.251	Epe luzeko hornidurak.....	A.11	999	848
Kudeak. eragik. zord. (aurrek.)....	A.10	64.739	81.104	Epe luzeko zorrak	A.11	18.337	19.693
Beste zordun b.& kobr. knt.....	A.10	11.599	10.955	PASIBO ARRUNTA		127.922	142.153
Finantza inbertsioak epe laburrera..	A.8	736	730	Epe motzeko zorrak.....	A.11	75.744	86.293
Eskud. eta bst. akt. lik. baliok. ...	A.12	28.963	24.208	Hartzek. eta ordaint. bst knt b. ...	A.11	31.734	33.277
				Aldizkatzeagatiko doikuntzak	A.6	20.443	22.583
AKTIBOA, GUZTIRA		1.307.864	1.334.410	PASIBOA, GUZTIRA		1.307.864	1.334.410

F. 2018 eta 2017-KO EKITALDIETAKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA Euroak milakotan

	2018	2017		2018	2017
Langileria-gastuak	337.033	329.980	Zerga sarrerak	37.530	36.462
Emandako transf. eta dirulaguntzak	7.972	7.426	Jasotako transf. eta dirulaguntzak.....	382.169	371.752
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.	67.517	69.014	Salmenta garbiak eta zerb. ematea	11.373	11.138
Ibilgetuaren amortizazioa	30.913	31.633	Izak. bariatz. eta balioaren narriad.	(55)	(161)
			Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....	2.264	3.405
KUDEAK. ARR. GASTUAK GUZT.	443.435	438.053	KUDEAK. ARR. SARR. GUZT.	433.281	422.596
			KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	(10.154)	(15.457)
			Balio narriadura eta ibilgetu ez finantz.		
			best. emaitz. eta salgai dauden aktib.	(64)	(26)
			Bestelako ez arruntak (sarrerak-gastuak)	755	(1.856)
			ERAG. EZ FINANTZ. EMAITZA	(9.463)	(17.339)
			Sarrera finantzarioak.....	-	-
			Gastu finantzarioak	(780)	(282)
			Balioaren narriadura, bajak eta finantza aktibo		
			eta pasiboen besterentzeak	196	72
			FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZA	(584)	(210)
			EKITALDIAREN EMAITZA	(10.047)	(17.549)

1.oharra: 2018ko ekitaldian EHUK 2017ko ekitaldian eta lehenagokoetan sortutako zenbait oker zuzendu ditu; horien guztien eragina 2017ko abenduaren 31ko ondare garian 3,5 milioi euro izan da.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2 FUNDAZIOAK

V.2.1 MEDIKUNTZA ETA ZIENTZIEN HISTORIAREN EUSKAL MUSEOA FUNDAZIOA

EGOERAREN BALANTZEA 2018 eta 2017ko abenduaren 31n				Euroak	
AKTIBOA	31.12.18	31.12.17	PASIB.	31.12.18	31.12.17
AKTIBO EZ ARRUNTA	595.100	595.100	ONDARE GARBIA	600.423	600.423
Ondare historikoko ondasunak	595.100	595.100	Fundazioaren dotazioa	595.100	595.100
			Aurreko ekitaldietako soberakinak	5.323	5.323
AKTIBO ARRUNTA	5.323	5.323	PASIBO ARRUNTA	-	-
Eskud. eta b. akt. lik. baliok. batz.	5.323	5.323			
AKTIBOA, GUZTIRA	600.423	600.423	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZT.	600.423	600.423

2018 eta 2017ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldien EMAITZEN KONTUA				Euroak	
	2018	2017		2018	2017
Langileria-gastuak	22.372	22.150	Jardueraren beraren sarrerak:		
Kudeaketa arrunteko beste gastu b. .	6.248	5.850	Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak ..	28.620	28.000
KUDEAK. ARR. GASTUAK GUZT.	28.620	28.000	KUDEAK. ARR. SARR. GUZT.	28.620	28.000
			JARDUERAREN SOBERAKINA	-	-
			Sarrera finantzarioak	-	-
			Gastu finantzarioak	-	-
			ERAGIKETA FINANTZARIOEN SOBERAKINA	-	-
			EKIT.ONDARE GARB. BARIAZ. EMAITZA GUZT.	-	-



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2.2 EHU-REN UDA IKASTAROAK FUNDAZIOA

EGOERAREN BALANTZEA 2018 eta 2017ko abenduaren 31n				Euroak	
AKTIBOA	31.12.18	31.12.17	PASIB.	18.12.31	17.12.31
AKTIBO EZ ARRUNTA	54.304	76.505	ONDARE GARBIA	83.060	82.180
Ibilgetu ukiezina.....	31.380	59.705	Fundazioaren dotazioa	30.051	30.051
Ibilgetu materiala.....	22.924	16.800	Aurreko ekitaldietako soberakinak	39.629	39.320
			Ekitaldiko soberakinak.....	880	309
			Dohaintzak eta legatuak	12.500	12.500
AKTIBO ARRUNTA	260.447	170.252	PASIBO ARRUNTA	231.691	164.577
Berezko jarduer. zordunak	116.521	62.810	Epe motzeko zorrak	151	3.103
Zord. eta kobratz. beste kontu b.	55.864	35.230	Hornitzaileak.....	171.077	129.801
Eskud. eta b. akt. lik. baliok. batz.	88.062	72.212	Bestelako zorrak adminis. publikoekin	34.263	22.353
			Aldizkatzeagatiko doikuntzak.....	26.200	9.320
AKTIBOA, GUZTIRA	314.751	246.757	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZT.	314.751	246.757

2018 eta 2017ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldien EMAITZEN KONTUA				Euroak	
	2018	2017		2018	2017
Langileria-gastuak.....	411.705	400.581	Berezko jarduerag. sarrerak.....	1.027.370	1.012.086
Kudeaketa arrunteko beste gastu b. .	1.177.084	1.159.806	Jasotako transf. eta dirulaguntzak.....	589.332	584.560
Ibilgetuaren amortizazioa.....	30.851	35.855	Beste emaitza batzuk.....	3.818	(95)
KUDEAK. ARR. GASTUAK GUZT.	1.619.640	1.596.242	KUDEAK. ARR. GASTUAK GUZT.	1.620.520	1.596.551

Balio narriadura eta ibilgetu ez finantz.

Ibilg. ez finan. eta salgai dauden aktib.

ERAK. EZ FINANTZ. EMAITZA

JARDUERAREN SOBERAKINA	880	309
Sarrera finantzarioak.....	-	-
Gastu finantzarioak.....	-	-
Trukaneurri aldeak.....	-	-
ERAGIKETA FINANTZARIOEN SOBERAKINA	-	-
EKIT.ONDARE GARB. BARIAZ. EMAITZA GUZT.	880	309

ERANSKINAK

A.1 ALDERDI OROKORRAK

EHU zuzenbide publikoko erakundea da, nortasun eta gaitasun juridikoa duena eta ondare propioa. Bere eskumeneko esparruan, EAEn goi-mailako irakaskuntzaren zerbitzu publikoa ematen du, irakasletza, azterlan eta ikerketa bidez.

EHU Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko campusek osatzen dute eta askotariko helburuen arabera, era honetara egituratzen da:

- Sail eta Institutuak, irakaskuntza eta ikerketarako.
- Ikastetxeak, irakaskuntza ordenatu eta antolatzeko, koordinazio akademikoa planifikatu eta gauzatzeko eta administrazioko kudeaketa unibertsitateko tituluak eskuratzeko.
- Zerbitzu nagusiak eta bestelako Unitateak, unibertsitate-izaera aitortua zaienak.

Legeria

- 6/2001 Lege Organikoa, abenduaren 21ekoa, Unibertsitateei buruzkoa eta ondorengo aldaketak.
- 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoa.
- 2/2007 Legegintzako Dekretua, azaroaren 6koa, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bategina onartzeko dena.
- 17/2011 Dekretua, otsailaren 15ekoa, Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuak onartzen dituena.
- 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko Aurrekontu Araubidearen Gaietan Indarrean dauden Legezko Xedapenen Testu Bategina Onartu eta EAEko Sektore Publikoko Fundazio eta Partzuergoei ezargarrria zaien aurrekontuko araubidea arautzen duena.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onesten duena.
- 2012ko ekainaren 25eko Agindua, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontabilitate Publikoaren Plana onesten duena.
- 14/2012 Errege Dekretu Legea, apirilaren 20koa, Hezkuntzaren Alorrean Gastu Publikoa Arrazionalizatzeko Presako Neuriei buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Bateratuari buruzkoa
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.
- 9/2016 Legea, ekainaren 2koa, Euskal Herriko Fundazioei buruzkoa.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.

Arau hauei, gainera, langileen gaietan ezargarrria den araudi berariazkoa gehitu behar zaie (ikus A.3).

A.2 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

Aurrekontua eta aurrekontuko aldaketak

EHUren 2018ko ekitaldirako aurrekontua 2018ko otsailaren 1eko Gobernu Kontseiluak eta 2018ko martxoaren 21eko Gizarte Kontseiluak onartu zuten.

Hona hemen ekitaldian egindako aurrekontuko aldaketak:

KAPITULUAK	Euroak milakotan				
	GELDIKINEN TXERTAKETA	KREDITU GEHIKUNTZA	BALIOGAB. BAJA	TRANSFER. ETA BIRBANAKETA	GUZTIRA
Langileria-gastuak.....	27.156	6.970	(1)	13.888	48.013
Funtzionamendu-gastuak.....	36.005	10.680	(2.261)	(15.083)	29.341
Gastu finantzarioak.....	7	1	-	621	629
Gtu. arr. transf. eta diru-lag.	3.012	5.863	(530)	27	8.372
Inbertsio errealak	9.375	2.217	(199)	423	11.816
Aktibo finantzarioen bariazioa	-	-	-	-	-
Zorren amortizazioa.....	-	-	-	124	124
GUZTIRA	75.555	25.731	(2.991)	-	98.295

EHUK 2018ko ekitaldiko aurrekontura 75,6 milioi euroren kreditu geldikinak txertatu zituen, 2017ko abenduaren 31ko berariazko geldikinarekin zenbateko berean finantzatuak. Txertaketa horiek 2018ko martxoaren 22an onartu ziren.

25,7 milioi euroren kreditu gaikuntzak honako diru-sarreraren bitartez finantzatzen dira:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	
Kanpoko kontratuak.....	3.299
Hortz klinika	426
Tasak.....	838
Beste kontzeptu batzuk.....	593
TASEK ETA BESTELAKO SARREREK ERAGINDAKO SARRERAK	5.156
EAE	7.188
Estatuko Administrazioa	3.047
Europar Batasuna	5.360
Bestelako dirulaguntzak.....	2.417
TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO SARRERAK	18.012
ONDARE-SARRERAK	460
KAPITAL TRANSFERENTZIENGATIKO SARRERAK	2.103
GUZTIRA	25.731



Aurrekontuaren exekuzioa

Sarrera aurrekontuaren gauzatze maila % 98koa izan da, aktibo finantzarioen bariazioa aintzat hartu gabe.

Gastuen aurrekontuak % 85,1eko egikarritza izan du. Kapituluaren araberrako azterketatik, honako hau azpimarratu behar dugu:

- Funtzionamendu-gastuak (% 63,8). Egikarritza txikia izan duelako (% 0,4) nabarmentzekoa da kanpo kontratuen funtzionamendu gastuei dagokien kontu-saila. Kontu-sail horrek gastu horiek finantzatzeko dagoen kreditu erabilgarri guztia barne hartzen du eta gerora, dagozkion aurrekontuko aplikazioetara aldatzen da, segun eta zein den egiaz egindako gastuen izaera.
- Transferentzia arruntak (% 75,9). Egikarritza maila txikia, batik bat, Erasmus Programari dagokio.
- Inbertsio errealak (% 61,7). Ekipamendu zientifikoko kontu-sailek egikarritza maila txikia izan dute eta eraikinak eta bestelako eraikuntzak kontu-sailean aurrekontu egindako lanen egikarritzan atzeraldiak izan dira.

Berriazko geldikina

EHUren berriazko geldikina egikaritzeko dauden kredituek osatzen dute, ikerketa-proiektu eta azpiegituri, xede jakin baterako kanpoko baliabideez hornitutako kontratuetatik datozeinei eta zorpetutako konpromisoak besarkatzen dituztenei dagozkienak, arrazoi justifikatuak direla medio gauzatu ezin izan direnak. Kreditu horien saldoak esleipena jaso zuten unitate funtzionalen eskura geratzen dira (Estatutuen 233.2 art.).

EHUk Txosten ekonomikoan aurkeztutako berriazko geldikina 2018ko abenduaren 31n 69 milioi euroena da; hona hemen xehakapena:

PROGRAMAK	Euroak milakotan					
	LANGILE- GASTUA	FUNTZIONAM. GASTUAK	FINANTZA GASTUAK	TRANSFER. ARRUNTAK	INBERTSIO ERREALAK	GUZTIRA
Irakasletza.....	200	2.827	-	363	167	3.557
Ikerketa	25.737	28.278	1	259	5.383	59.658
Administrazioko kudeaketa eta gastu orokorrak ..	-	34	-	-	-	34
Irakasletza, kirola eta kultura.....	158	146	-	56	-	360
Inbertsioak eta azpiegitura.....	-	19	-	-	261	280
Informatika.....	-	20	-	-	-	20
Nazioarteko harremanak.....	240	581	1	1.752	-	2.574
Ikerketa	218	1.314	-	-	963	2.495
Beste txiki batzuk.....	-	12	-	-	-	12
GUZTIRA	26.553	33.231	2	2.430	6.774	68.990

A.3 LANGILERIA-GASTUAK

Hona hemen langile gastuen kapituluaren egikaritzza kontzeptuka:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	2018	2017	% BARIAZIOA 18/17
Irakasle funtzionarioa.....	104.987	109.100	(3,8)
Irakasle elkartuak	5.814	5.603	3,8
Irakasle kontratatuak.....	63.919	58.420	9,4
Irakasle ikerlariak.....	16.189	16.485	(1,8)
Irakasle ordezkioak	4.682	4.801	(2,5)
Graduondoko ikastaroak, ikerketa kontratuak eta beste.....	4.265	3.962	7,6
Beste irakasle batzuk.....	13.434	11.324	18,6
II	213.290	209.695	1,7
Administrazio eta zerbitzuetako langile funtzionarioak.....	47.612	48.219	(1,3)
Admin. eta zerbitz. langile lan kontratupekoak eta behin-behinekoak	22.992	23.443	(1,9)
Graduondoko ikastaroak, ikerketa kontratuak eta beste.....	184	131	40,5
AZL	70.788	71.793	(1,4)
Kotizazio sozialak.....	49.788	46.859	6,3
Itzarri BGAEari ekarpena	1.576	1	-
Bestelako gastuak	1.591	1.632	(2,5)
GUZTIRA	337.033	329.980	2,1

EHUren zerbitzura diharduen langileria

Langileak honako atal hauetan sailkatzen dira:

A- Irakasle eta Ikerlariak

- Unibertsitateko irakasleen kidegoak: Unibertsitateko Katedradunak eta Unibertsitateko Irakasle Titularrak Unibertsitate Eskolako Katedradun eta Irakasle Titularrak desagertzeaz dauden kategoriak dira.
- Lan zuzenbideko erregimenarekin kontraturiko irakasleak: ULok autonomia erkidegoei aitortzen die irakasle kontratatuaren erregimena arautzeko gaitasuna. EAEn kasuan, arautze hori EUSLn eta martxoaren 4ko 40/2008 Dekretuan dago jasoa, EHuko irakasle eta ikerlarien erregimenari buruzkoan. Honako kategoria hauek bereizten dira:
 - Iraunkorra: irakasle osoak, agregatuak, ikerlariak eta doktore-ikerlariak.
 - Aldi baterakoa: irakasle atxiki, laguntzaile, elkartu, emeritu, bisitari, ikerlari edo ikerketa proiektu bat egiteko obra edo zerbitzu-kontratua duten teknikari eta prestatzen ari diren ikerlariak.



B- Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak

- Funtzionarioak eta lan-kontratupekoak.

Ordainsarien bariazioa

EHUko langileei ordaindutako ordainsariak % 1,5eko igoera izan dute 2017ko ekainera arte eta % 1,75ekoa uztailez geroztik, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeuden aldean, 2016rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen 18.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Irakasle eta Ikerlarien gehigarriko ordainsari osagarriak

EUSLk 34. artikuluan dio Eusko Jaurlaritzak ordainsari gehigarriak ezarri ditzakeela irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketa arloan, egoki iritzitako irizpideen arabera. Eusko Jaurlaritzaren egitekoa da ordainsari mugak finkatzea eta EHUren Gizarte Kontseiluarena bakoitzari esleitu behar zaion kopurua erabakitzea, aldezturik Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemako Kalitate Agentziak merezimenduen balorazioa eginda.

2004ko abenduaren 21ean akordio bat izenpetu zuten Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta EHUK, finantzaketa eredu egonkor bat finkatu eta ordainsari osagarriak ezartzeko. Osagarri mota honi dagokionez, EAEk osagarri horien % 85 eta % 90 bitarteko ehunekoa finantzatuko zuela erabaki zen.

Gerora, honako dekretu hauek onartu ziren: 209/2006 Dekretua, urriaren 17koa, EHUKo irakasle eta ikerlarien gehigarriko ordainsari osagarri buruzkoa, 2011n martxoaren 29ko 64/2011 Dekretu bidez aldarazitakoa; eta 41/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, EHUKo irakasle eta ikerlarien ordainsariei buruzkoa, zeinak 3.b artikuluan osagarri hauek ordainsari osagarrien atal modura jasotzen dituen, Irakasle eta Ikerlariari ordaingarri direnak.

2018ko ekitaldian zehar osagarri hauen kontzeptuan 21,5 milioi euro ordaindu dira, % 85ean EAEk finantzatzen dituenak.

EHUK ez zuen irakasle eta ikertzaileen gehigarriko ordainsari osagarrien deialdirik egin 2011tik 2014ra bitartean. Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak urteko deialdia ez egitea zuzenbidearen aurkakotzat jo zuen 2014ko martxoaren 18ko epai bidez. 2015ean urte bereko deialdia onartu zen, atzera indarririk ez duena.

2016an, Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiaren irizpideei jarraikiz, EHUren Gobernu Kontseiluak 2013 eta 2014ko ekitaldietako deialdiak onartu zituen eta Gizarte Kontseiluak onartu zain daude; halaber, ebaluatu gabe dago horrek eragindako ondorio ekonomikoa.

Bestalde, EHUK onartu egin ditu 2016, 2017 eta 2018ko ekitaldietako gehigarriko ordainsari osagarrien deialdiak, osagarri horiek arautzen dituen Dekretuan finkatutakoa betez.



Bosturtekoak

2016ko maiatzaren 3an Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epai batek aldi baterako lan-kontratuko langileei aitortu zien 2015eko irakasletzako merituen ebaluazioa eskatzeko eskubidea (bosturtekoak), EHUko irakasle eta ikerlarien errektore-ordearen 2015eko azaroaren 11ko Ebazpenari jarraikiz. Epai hau betearazteko, bosturtekoen deialdiak onartu dira aldi baterako lan-kontratuko langileentzat, 2015, 2016, 2017 eta 2018ko ekitaldietakoak.

2018ko apirilaren 26ko Gobernu Kontseiluaren Erabaki bidez onartu da aldi baterako lan-kontratuko langileek jaso beharreko bosturtekoaren zenbatekoa irakasle lankide iraunkorarentzat finkatutakoarekin parekatzea. Langile hauei 2015 eta 2016ko deialdietan aitortutako bosturtekoengatik atzerapen kontzeptuan 2018an ordaindu zaien zenbatekoa 420.551 euro izan da eta 2019an ordaintzeke dago 841.103 euro inguruko zenbatekoa.

Seiurtekoak

2017an Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epai batek aldi baterako langileriarri aitortu dio ikerketa-jardueragatik merezimenduen ebaluazioa eskatzeko eskubidea (seiurtekoak). Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemako Kalitate Agentziak 2017ko ekitaldiko seiurtekoen deialdian jada aldi baterako lan-kontratuko bitarteko langileak plaza hutsetan barne hartu zituen.

2019ko uztailaren 11ko Gobernu Kontseiluaren Erabaki bitartez onartu egin da aldi baterako irakasleek jaso beharreko seiurtekoaren zenbatekoa irakasle agregatu edo irakasle titularrentzat ezarrita dagoenarekin berdintzea, baldin eta figura horietakoak direla egiaztatuz gero, edota laguntzaileentzat ezarritakoarekin berdintzea, ziurtagiri hori izan ezean.

Langile hauei aitortutako seiurtekoak 2019an hasi dira ordaintzen, 2018ko urtarrilaren 1az geroztiko atzeraeraginarekin. 2019an atzerapen kontzeptuarekin ordaindutako zenbatekoa 46.800 euro izan da.

Bestelako ordainsariak

EHUk ordainsari osagarriak eta parekatzeak ordaindu ditu, unibertsitateko irakasleen ordainsariei buruzko abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuak arautu ez dituenak. Osagarri hauek 2018ko ekitaldian 588.881 euroren gastua eragin dute; hona hemen xehakapena:

- Lanaldi osoan diharduten irakasleek % 0,68ko ordainsari osagarria jasotzen dute 1992. urteko ordainsari osoen gainean, 1993ko ekainaren 8ko Gizarte Kontseiluak onartutakoa. 2018an ordaindutako kopurua 244.060 euro izan da.

- Errektoretzaren 1992ko abenduaren 30eko Ebazpen bitartez honako hauen arteko ordainsariak parekatzea onartu zen: unibertsitate eskoletako irakasle titularrenak -doktore gradua duten eta lanaldi osoan dihardutenak- eta fakultateko irakasle elkartuak -doktore gradua dutenak eta lanaldi osoan dihardutenenak-. 2018an parekatze honen ondorioz ordaindutako zenbatekoa 344.821 euro izan da.

Graduondoko ikastaroa eta ikerketa kontratuak

Ilek eta AZLek graduondoko ikastaroetan eta ikerketa kontratuetan parte hartzeagatik jasotako ordainsari gehigarriak, honako hauetan xehatzen dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	2018	2017	BARIAZ. 18/17
Ikerketa kontratuetan parte hartzea.....	2.487	2.256	% 10,2
Graduondoko ikastaroetan parte hartzea.....	575	572	% 0,7
Selektibitateko epaimahaietan parte hartzea.....	437	427	% 2,3
Beste batzuk (mintegiak, uda ikast., prestakuntza, etab.) ..	601	598	% 0,5
GUZTIRA	4.100	3.853	% 6,4

Irakasleei parte hartzen duten jarduera bakoitzean egiten zaizkien ordainketak urriaren 10eko 1930/1984 EDk arautzen ditu, proiektu zientifikoak, teknikoak edo artistikoak egiteko eta espezializazio ikastaroak gauzatzeko bateragarritasunari dagokionez. 2018an kontzeptu hauengatik jasotako batez besteko ordainsaria 2.806 euro izan zen, guztira 1.427 pertsonari zegokiena (irakasle eta ikerlari guztien gainean % 25).



Lanpostuen zerrenda eta plantilla erreal

A- Irakasle eta Ikerlariak

Langile kopurua

KONTZEPTUA	LZ ABENDUAREN 31-N			PLANTILLA ABENDUAREN 31-N		
	2018	2017	% Bariaz.18/17	2018	2017	% Bariaz.18/17
Unibertsitateko katedradunak	443	449	(% 1,3)	366	380	(% 3,7)
Unibertsitate eskoletako katedradunak	22	28	(% 21,4)	15	23	(% 34,8)
Unibertsitateko titularrak	1.021	1.049	(% 2,7)	948	993	(% 4,5)
Unibertsitate eskoletako titularrak	284	320	(% 11,3)	251	289	(% 13,1)
Unibertsitateko elkartuak	828	805	% 2,9	680	667	% 1,9
Unibertsitate eskoletako elkartuak	153	155	(% 1,3)	98	103	(% 4,9)
Unibertsitateko irakasle lankideak	96	102	(% 5,9)	(*)87	97	(% 10,3)
Uniberts. eskoletako irakasle lankideak	74	85	(% 12,9)	(*)69	77	(% 10,4)
Irakasle agregatuak	734	674	% 8,9	566	564	% 0,4
Irakasle doktore ikerlariak	62	61	% 1,6	58	57	% 1,8
Irakasle osoak	27	19	% 42,1	7	7	-
Soin Hezkuntz. Euskal Erakund. irakasleak ..	32	31	% 3,2	30	31	(% 3,2)
Nautikako irakasle numerarioak	2	2	-	2	2	-
Irakasle lankideak	16	32	(% 50)	14	30	(% 53,3)
Irakasle atxikiak	683	596	% 14,6	441	371	% 18,9
GUZTIZKO PARTZIALA	4.477	4.408	% 1,6	3.632	3.691	(% 1,6)
Lan kontratupeko bitartekoak				719	704	% 2,1
Ikerlariak				1.185	1.138	% 4,1
Beste txiki batzuk				95	82	% 15,9
GUZTIRA				5.631	5.615	% 0,3

(*) Guztira, 17 langile barne hartu dira, epei bidez lan kontratu mugagabeko izendatutakoak: 1 "Unibertsitateko irakasle lankideetan" eta 16 "Unibertsitate eskoletako irakasle lankideetan".

ULOALoren 1. eta 2. xedapen gehigarriek, unibertsitate eskoletako katedradun eta titularrei buruzkoek, euren kideak Unibertsitateko Irakasle Titularren Kidegoan integratzea aurreikusten dute. Alabaina, azken kategoria profesional honen plantilla ez da hazi 2018an, izan ere amortizatu diren plazek irakasle atxikiaren plazak sorrarazi dituzte.

Azken plaza hauek, Euskal Unibertsitate Sistemaren Legearen 21. artikulua arabera, karrera akademikoa hasten dutenentzat gordeak daude eta ezin da kontratazio molde hau 4 urtez baino gehiago luzatu; ez dute nahitaz ondoz ondokoak izan behar. Irakasle atxikiaren plantillaren eta LZren igoera esanguratsua, batik bat, unibertsitate eskoletako katedradun eta titularren plaza hutsak eraldatzetik dator, arestiko paragrafoan azaldu dena, eta Unibertsitateko titularren plazak eraldatzetik.

EAEren 2011ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2010 Legearen 9. xedapen gehigarriak 4 urteko epea finkatzen zuen kontratatutako IIak irakasle lankide edo antzeko beste irakasle figura batzuen moldepean jasotzeko, irakasle agregatuaren kategorian. Epe hori 2017ko abuztuaren 31ra arte luzatu zuen EAEren 2015eko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2014 Legearen 11. xedapen gehigarriak, eta ondoren, 2020ko abuztuaren 31ra arte EAEren

2017ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen apirilaren 11ko 2/2017 Legearen 14. xedapen gehigarriak.

Unibertsitateen Lege Organikoaren 53. artikulua arabera, irakasle elkartuen kontratuak gaitasun aitortua duten adituekin egingo dira, lanbide jardura unibertsitateko esparru akademikoaz kanpo dutela egiaztatzen dutenekin; kontratu horiek aldi baterakoak izango dira, lanaldi partzialean. 2018ko ekitaldian lanbide kategoria honentzat sortutako plaza guztiak baldintza horietara egokitzen dira.

Irakasle eta ikerlari funtzionario eta lan kontratuekoen azken LZ, 2017ko urriaren 31n gaurkotutakoa, 2017ko abenduaren 14ko Gobernu Kontseiluak onartu zuen. Lanpostu zerrenda hau ez da EHAAan argitara eman. Gainera, 2018ko ekitaldian Gobernu Kontseiluak onartutako Irakasle eta Ikerlarien Lanpostu Zerrendako aldaketak ez dira EHAAan argitaratu.

B- Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak

KONTZEPTUA	Langile kopurua					
	LZ ABENDUAREN 31-N			PLANTILLA ABENDUAREN 31-N		
	2018	2017	% Bariaz. 18/17	2018	2017	% Bariaz. 18/17
Behin-behinekoak	19	20	(% 5,0)	20	21	(% 4,8)
Karrerako funtzionarioak	1.146	1.146	-	577	620	(% 6,9)
Bitarteko funtzionarioak lanpostu hutsean	-	-	-	411	358	% 14,8
Lan kontratuko langile finkoak	404	403	% 0,25	64	72	(% 11,1)
Bitarteko langileen kontrat. lanp. hutsagatik ..	-	-	-	(*)313	317	(% 1,3)
GUZTIZKO PARTZIALA	1.569	1.569	-	1.385	1.388	(% 0,2)
Bitarteko funtzionarioak lanen pilaketagatik edo aldi baterako programak				151	171	(% 11,7)
Ordezko bitarteko funtzionarioak				227	221	% 2,7
Lanak metatzeagatik kontratuak				4	3	% 33,3
Ordezkapenagatik bitarteko kontratuak				48	45	% 6,7
Partzialki erretiratuen kontratuak				26	14	% 85,7
Errelebo kontratuak				6	8	(% 25,0)
Obra edo zerbitzu jakinagatik kontratuak				53	51	% 3,9
GUZTIRA				1.900	1.901	(% 0,1)

(*) 8 langile barne hartu dira, epai bidez lan kontratu mugagabeko izendatutakoak: 7k plantillako lanpostu hutsak betetzen dituzte eta batek lanpostu hutsean bitarteko lan kontratua du.



Enpleguaren Eskaintza Publikoa (EEP)

A- Irakasle eta Ikerlariak

EHUren Gobernu Kontseiluaren 2018ko abenduaren 20ko Erabaki bitartez (2018ko abenduaren 31ko EHAA), 2018ko urterako Enpleguaren Eskaintza Publikoa onartu zen honako plaza hauetarako:

KATEGORIA	LANPOSTU KOP.
Unibertsitateko titularrak.....	22
Irakasle osoak	5
Ikerlari iraunkorrak.....	21
Irakasle agregatuak.....	92
GUZTIRA	140

Txosten hau idatzi dugun datan, 2018ko Enplegu Publikoaren Eskaintzatik 76 plaza deitu dira eta 14 bete; 2017ko EEPTik 134 plaza deitu dituzte eskainitako 161etik eta 124 bete dira; eta 2016ko EEPan barne hartutako 87 plazak deitu eta bete dira.

B- Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak

EHUren Gobernu Kontseiluaren Erabaki bitartez, 2016ko uztailaren 7an (2016ko abuztuaren 10eko EHAA) lan kontratupeko administrazio eta zerbitzuetako langileen 2016ko urterako 44 plazaren Enplegu Eskaintza Publikoa onartu zen.

EHUren Gobernu Kontseiluaren Erabaki bitartez, 2017ko abenduaren 14an (2017ko abenduaren 26ko EHAA) lan kontratupeko administrazio eta zerbitzuetako langileen 2017ko urterako 33 plazaren Enplegu Eskaintza Publikoa onartu zen eta erabaki zen hautapen-prozesu global berean egitea 2016ko EEPan eta 2017ko EEPan eskainitako plazen deialdia.

2018an, azaroaren 22ko EHAAan argitaratu dira enpleguaren bi eskaintza publikoetan barne hartutako lan kontratupeko langileen 77 plazen oinarri-arau orokorrak eta oinarri-arau espezifikoak.

Txosten hau idatzi dugun datan 2016 eta 2017ko EEPan barne hartutako plaza guztiak deitu dira, hautaketa prozesuetatik batere amaitu ez dela.

Berebat, 2018ko abenduaren 20ko EHUren Gobernu Kontseiluaren Erabaki bitartez (2018ko abenduaren 31ko EHAA) 2018rako lan kontratupeko administrazio eta zerbitzuetako langile funtzionarioen EEPa onartu da, zeinetan 38 plaza barne hartu baitira.

2019an, EHUren 2019ko abenduaren 12ko Gobernu Kontseiluaren Erabaki bitartez (2019ko abenduaren 24ko EHAA) administrazio eta zerbitzuetako langile funtzionarioen EEPa onartu da, zeinetan langile funtzionarioen 399 plaza eta lan kontratupeko langileen 236 plaza barne hartu baitira.

2018ko eta 2019ko EEPak hautaketa-prozesu bakarrean egingo dira.



A.4 FUNTZIONAMENDU-GASTUAK

Kapitulu honetan erregistraturiko obligazioen xehakapena kontzeptuen arabera honakoa da:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	2018	2017	% BARIAZ. 18/17
Errentamenduak	726	636	% 14,1
Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza.....	4.134	5.133	(% 19,5)
Bulegoko materiala.....	3.271	3.272	-
Hornidurak	15.382	14.382	% 7,0
Komunikazioak	1.677	1.778	(% 5,7)
Publizitatea eta propaganda.....	313	434	(% 28,0)
Garraioa, aseguruak, harreman publikoak, zergak	1.483	1.545	(% 4,0)
Bilerak eta hitzaldiak.....	4.664	4.599	% 1,4
Hainbat gastu	1.468	1.569	(% 6,4)
Kanpoko zerbitzuak:			
Garbiketa	11.842	11.797	% 0,4
Zaintza	3.503	3.486	% 0,5
Azterlanak eta irizpenak	1.027	1.105	(% 7,1)
Argitalpenak.....	1.008	777	% 29,7
Informatika-zerbitzuak.....	2.399	2.225	% 7,8
Beste batzuk.....	4.703	4.771	(% 1,4)
Zerbitzu arrazoientzako kalte-ordainak	6.083	6.421	(% 5,3)
TITULU PROPIORIK GABEKO GASTU ARRUNTEN GUZTIZKO PARTZIALA	63.683	63.930	(% 0,4)
Titulu propioak eta kanpoko kontratuak	109	90	% 20,9
GUZTIRA	63.792	64.020	(% 0,4)

A.5 INBERTSIO ERREALAK, IBILGETUA ETA ONDAREA

Inbertsio errealak

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	2018	2017	% BARIAZ. 18/17
Eraikinak	4.721	3.595	% 31,3
Makineria, instalak. eta tresneria	493	717	(% 31,3)
Altzariak eta tresnak.....	782	953	(% 18,0)
Informazio prozesuetarako ekipoak.....	2.966	2.854	% 3,9
Ekipamendu zientifikoa	6.292	6.677	(% 5,8)
Bibliografia funtsak	4.526	4.527	-
Bestelakoak	224	125	% 78,4
GUZTIRA	20.004	19.448	% 2,9



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Urte askotarako inbertsio-plana, 2019-2022

Euskal Unibertsitate Sistemarako 2019-2022 Unibertsitate Planak Urte askotarako inbertsio-plana barne hartzen du, xehakapen honen arabera:

Euroak milakotan							
OBRAK	2019	2020	2021	2022	2023	2024	GUZTIRA
EHUko Medik. eta Erizain. Fakultatea (*)	500	1.843	13.428	13.428	13.428	2.238	44.865

(*) 2023-2026 Unibertsitate Sistema Plana mamitzean 2023 eta 2024ko urtekoetarako adostutako diru-kopuruak islatu behar dira, taula honetan jaso bezala.

Inbertsio plan honek obra baldintzatu izaera du, esan nahi baita EHUK beharrezkoak diren izapideak egin beharko dituela finkatutako egutegi eta aurrekontuaren esparruan. EHUK, beharrezkoa balitz eta Eusko Jaurlaritzaz kanpo, bestelako zeinahi finantzaketa osagarri bilatuko du fakultatea eraiki eta zuzkitzeko.

Ibilgetua

Hona hemen ibilgetuaren xehakapena ekitaldi itxieran:

Euroak milakotan			
KONTZEPTUA	SALDO GORDINA	AMORT. METAT./ NARRIAD./ERRET.	SALDO GARBIA
	18.12.31		18.12.31
Aplikazio informatikoak	1.861	(1.214)	647
Errentamendu edo lagapenean erabilitako aktiboetan inbertsioak	6.525	(3.901)	2.624
Beste ibilgetu ukiezin bat	1.979	(1.310)	669
IBILGETU UKIEZINA GUZTIRA	10.365	(6.425)	3.940
Lursailak	412.068	(*) (19.274)	392.794
Eraikuntzak eta azpiegiturak	790.920	(93.337)	697.583
Beste ibilgetu material bat.....	372.557	(269.975)	102.582
Makineria, lanabesak eta bestelako instalazioak.....	10.177	(8.394)	1.783
Altzariak	47.021	(38.266)	8.755
Informazio prozesuetarako ekipoak	48.076	(43.488)	4.588
Bibliografia funtsak.....	63.217	(41.305)	21.912
Bestelakoak	204.066	(138.522)	65.544
Indarreko ibilgetua eta aurrerakinak.....	91	-	91
IBILGETU MATERIALA GUZTIRA	1.575.636	(382.586)	1.193.050

(*) EHUK zenbait eraikin eta lursailen erabilera laga die hirugarrenei ordainik jaso gabe; honela, bada, eraikinen kasuan aktiboari baja eman zaio eta kostua narriatu, lursailen kasuan.

Unibertsitatearen Erreformatarako 11/1983 Lege Organikoak, abuztuaren 25ekoak, 53.2 artikuluan ezartzen du unibertsitateek beren gain hartuko dutela unibertsitateen egitekoen eraginpean dauden Estatuko jabetza publikoko ondasunen titulartasuna. Abenduaren 27ko 489/1994 Dekretu bitartez, EA Eren Administrazioak EHUri atxikitako zenbait ondasun higiezinaren titulartasuna eskualdatu zion.



2007ko ekitaldian, EHUK eskatu zion aditu independente bati bere jabetzako lursail eta eraikin guztien balorazioa egiteko eta erosketa prezioa edo produkzio kostua finkatzeko ezintasunaren aurrean, arrazoizko balioarekin tasatu ziren. Tasazio-balio horren arabera, ibilgetu horiek amortizatu egin dira 2008ko ekitaldiaz geroztik eta gainera, erosketa, besterentze, eskualdaketa eta idazpuru honekin lotutako gainerako bariazioen kontularitzaz kanpoko erregistroa gauzatu da.

EHUK hitzarmen bat izenpetu zuen Teknologia Parkea SArekin 2015eko abenduaren 21ean eta bertan ezartzen zen EHUri dagokiola Leioako Biofisika eraikin osoaren erabilera-eskubidea; eraikin honen eraikuntzan Teknologia Parkea SAK ere parte hartu du eta honenbestez, eraikinaren titulartasunaren zati bat ere berea du. Akordioaren arabera, Teknologia Parkea SAK egindako erabilera-lagapenaren ordainetan, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak Teknologia Parkea SARI emandako maileguaren zenbateko baliokidea ordainduko dio; mailegu hori Biofisikako eraikina eraikitzeke erabili zen. Mailegua 5,7 milioi euroena da, eta eraikuntzen balio handiago modura erregistratu da; bada, 2017ko abenduaren 31n horietatik 3,5 milioi euro daude ordaintzeko, zeinak ibilgetuko hornitzaile modura erregistratu baitira (ikus A.11).

Ondare garbia

EHUren ondare garbia osatzen duten kontuen xehakapena honakoa da:

	Euroak milakotan	
	SALDOA	SALDOA
	18.12.31	17.12.31
Ondarea	1.102.694	1.102.694
Sortutako ondarea	4.050	14.097
Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	14.097	31.646
Ekitaldiko emaitza.....	(10.047)	(17.549)
Emaitzetara egozteko dauden ondare-gehikuntzak	53.863	54.925
GUZTIRA	1.160.607	1.171.716

Ondarearen kontu-sailaren saldoak, funtsean, EHU eratu zen unean egindako hasierako ondare-ekarpena jasotzen du eta lursail eta eraikin guztien arrazoizko balioa erregistratzearen eragina, aurreko paragrafoan aipatutako balorazioaren arabera.

Aurreko ekitaldietako emaitzek, bestetik, aktibo eta pasibo guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko Kontabilitate Publikoaren Planera egokitzeko egindako doiketak txertatzen dituzte.

Emaitzetara egozteko dauden ondare-gehitzeak, era honetara xehakatzen dira:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan			
	SALDOA 18.01.01	GEHIKUNTZ.	EMAITZETARA EGOTZIAK	SALDOA 18.12.31
Lagatako higiezinaren gaineko erabilera eskubideengatik sarrerak	688	-	(92)	596
Biologia eta Bioteknologia Esperimentalen Plentziako Itsas Estazioa	291	-	(59)	232
Hiru eraikuntza Sarrikon.....	397	-	(33)	364
Kapitalezko dirulaguntzak	54.237	559	(1.529)	53.267
Bilboko Enpresa Ikasketen UE.....	4.392	-	(46)	4.346
Ekipamenduaren dohaintza.....	6.879	559	(647)	6.791
Ekitaldiko inbertsioak finantzatzeko dirulaguntzak	42.966	-	(836)	42.130
EGOZTEKO DAUDEN ONDARE GEHIKUNTZAK GUZTIRA	54.925	559	(1.621)	53.863

EHUri ordainik jaso gabe lagatako higiezinaren erabilera eskubideek eragindako sarreraren saldoa bat dator ibilgetu ukiezinan erregistraturiko eskubide horien balorazioarekin eta emaitzetan egoztea dagozkion aktiboak amortizatzen diren proportzio berean egiten da.

A.6 TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

2018 eta 2017ko ekitaldietan kitatutako sarreraren xehakapena honako hau da:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	2018	2017	% BARIAZ. 18/17
Tasa akademikoak, administratiboak eta atxikitako zentroenak	27.117	29.025	(% 6,6)
Beste prezio publiko batzuk.....	8.116	8.083	% 0,4
TASAK ETA PREZIO PUBLIKOAK	35.233	37.108	(% 5,1)
Kanpoko kontratuak.....	7.099	7.092	% 0,1
Kanpoko kontratuen atxikipenak	1.324	1.278	% 3,6
Egoitzak eta ikastetxe nagusiak	1.095	1.320	% 17,0
Argitalpen zerbitzua	371	528	(% 29,7)
Bestelako sarrerak	2.132	2.464	(% 13,5)
BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	12.021	12.682	(% 5,2)
GUZTIRA	47.254	49.790	(% 5,1)

Prezio publikoak

EHUko goi mailako hezkuntzako zerbitzu publikoen ordainetan ordaindu beharreko prezioak eta horien ordainketa moldea 2018/2019 ikasturterako, baita horiek salbuetsi eta murrizteko onuraren baldintzak zehaztea ere, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2017ko ekainaren 20ko Agiri bidez finkatu ziren, Unibertsitateen Lege Organikoaren 81.3.b artikulua indarrez. Aipatutako aginduak agintzen du diru-sarrera 2018ko abenduaren 31 baino lehenago egingo dela eta 2011ko ekitalditik aurrera ezarri zen tasak kobratzeko irizpideari eutsiko zaiola (irailean eta abenduan).

Bestetik, aurrekontuaren ikuspuntutik, EHUK 2008ko ekitaldian finkatutako kutxa irizpidearen arabera erregistratzen ditu tasek eragindako sarrerak eta aldiz, ondarean, sortzapenaren arabera banatzen dira. Honenbestez, Egoeraren balantzean

aldizkakotzeagatik doiketen kontu-sail bat dago, 20,4 milioi euroren saldoa duena; saldo hori 2019ko ekitaldiko tasei dagokie, aldez aurretik 2018an kobratutakoak. Berebat, ondarean erregistratu da zorpetutako eta itxieran kobratu gabeko tasen kontzeptuan kobratzeko dagoena, 1,2 milioi euroren zenbatekoduna, eta horiek 2017ko ekitaldian ez dute aurrekontuan islarik izan (ikus A.10).

Kanpoko kontratuak

Kontzeptu honek jasotzen ditu hirugarrenek EHUri agindutako lanak, azterlanak edo proiektuak egiteagatik aitortutako eskubideak.

	Euroak milakotan		
EAren Administrazioa	578	528	% 9,5
Erakunde pribatuak	3.684	3.174	% 16,1
Foru aldundiak	112	310	(% 63,9)
Euskoiker Fundazioa	969	978	(% 0,9)
Estatuko Administrazioa	118	217	(% 45,6)
Fundazioak	447	643	(% 30,5)
Toki administrazioak	941	997	(% 5,6)
Beste administrazio publiko batzuk	122	78	% 56,4
Unibertsitateak	128	167	(% 23,4)
GUZTIRA	7.099	7.092	% 0,1

EHUren Gobernu Kontseiluak 2007ko abenduaren 20an onartu zuen era honetako kontratuak arautzen dituen araudia: izaera zientifiko, tekniko, humanistiko edo artistikoa duten lanak eta espezializazioko irakaskuntzen garapena edo prestakuntzako jarduera bereziak pertsona fisiko edo juridiko, unibertsitate edo erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan egitekoak. Araudi horren 27. artikulua agintzen du kontratuaren guztizko zenbatekotik, BEZa eta ibilgetu inbentariagarria kanpoan utzita, % 15eko gutxieneko atxikipena egingo dela, zeharkako kostuen kontzeptuan, helburu hauetarako:

- % 5, kontratua lotzen zaion zentro, sail, institutu propio edo antzekoarentzat.
- Gainerako % 10a erabiliko da unibertsitateko jardueratik eratorritako emaitzak sustatu eta hobetzeko gastu gehigarriak ordaindu eta EHuko gastu orokorreari aurre egiteko.



A.7 JASOTAKO TRANSFERENTZIA ARRUNTAK ETA KAPITALEZKOAK

Transferentzia arrunt eta kapitalezkoen kontzeptuan kitatutako sarrerak ondoko taulan adierazitako moduan xehakutzen dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK		KAPITALEZKO TRANSFERENTZIAK	
	2018	2017	2018	2017
Estatuko transferentziak.....	9.414	8.767	7.022	5.735
EAEren Administrazio Orokorra:				
Dirulaguntza orokorra.....	258.908	257.587	1.500	1.000
Irakasleen osagarriak (ikus A.3).....	18.279	17.393	-	-
Kontratu programak.....	13.278	23.571	19.152	16.180
Bestelako dirulaguntzak.....	35.095	23.802	(36)	-
Arabako Foru Aldundia.....	242	170	-	-
Gipuzkoako Foru Aldundia.....	771	758	-	-
Bizkaiko Foru Aldundia.....	655	689	-	-
Udal erakundeak.....	89	105	200	164
Beste erakunde publiko batzuenak.....	941	759	-	-
Enpresa pribatuen dirulaguntzak.....	2.716	2.787	(8)	304
Familia, irabazi asmorik gabeko erakundeak.....	188	66	-	-
Europar Batasunarenak.....	8.590	9.425	404	(21)
Europako araubideko beste erakunde publiko batzuenak	330	869	-	-
GUZTIRA	349.496	346.748	28.234	23.362

Kontratu-programak

EUSLk 89. artikuluan agintzen du unibertsitate gaietan eskumena duen sailak, Eusko Jaurlaritzaren izenean, kontratu-programak izenpetu ahal izango dituela unibertsitateekin, eta izaera administratiboa eta dirulaguntza-izaera izango dutela; 92. artikuluan zehazten du, gainera, kontratu horiek finantzaketa baldintzatukoak direla, zenbait jarduera helburudunen arabera definituak eta emaitzak adierazle bidez kuantifikagarriak.

2014ko abenduaren 30ean, Eusko Jaurlaritzak 2015-2018 Unibertsitate Plana onartu zuen Euskal Unibertsitate Sistemarentzat. Aipatutako Planean eta jada adierazitako EUSLren 89. eta 92. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, 2015eko uztailaren 28an hiru kontratu-programa izenpetu ziren, guztira milioi euroa egin zutenak; honako taula honetan laburtuko ditugu hasierako aurreikuspenei eta 2017ko ekitaldi itxierako egikaritzari dagozkion datuak:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan

KONTRATU-PROGRAMAK	HASIERAKO AURREIKUSPENAK				GUZTIRA	EGIKARITZA	
	2015	2016	2017	2018		2017	2018
Prestakuntza	9.686	9.585	9.687	9.809	38.767	10.461	10.721
Ikerketa eta Transferentzia	18.923	18.352	18.691	19.617	75.583	18.355	19.987
Erantzukizun soziala	2.973	3.104	3.284	3.533	12.894	3.041	2.967
PROGRAMEN GASTUAK GUZTIRA	31.582	31.041	31.662	32.959	127.244	31.857	33.675
DIRU-SARRERAK GUZTIRA						32.737	32.722

A.8 ALDI BATEKO FINANTZA INBERTSIOAK

Hona hemen dagozkion idazpuruen xehakapena, balantzeko aktiboan duten izaeraren arabera sailkatuak, epe labur edo motzekoak diren:

Euroak milakotan

DESKRIBAPENA	FINAN. INBER.	FINAN. INBER.	GUZTIRA
	EPE MOTZERA	EPE LUZERA	
Finantza inbertsioak ondarean	-	3.086	3.086
Langileei maileguak (ikus A.10)	735	555	1.290
GUZTIRA	735	3.641	4.376

Epe luzeko finantza inbertsioenak diren saldoen xehakapena honako hau da:

Euroak milakotan

ENTITATEA	KONTULARITZAKO		BALIO	%
	BALIOA	ZUZKIDURA	GARBIA	PARTAID.
Bizkaiko Teknologia Parkea SA	4.880	(1.958)	2.922	% 2,4
3 fundazio	90	-	90	% 15,0
Beste partaidetza batzuk	74	-	74	
FINANTZA INBERTSIOAK ONDAREAN	5.044	(1.958)	3.086	

A.9 ZORRA

Hona hemen zorraren bilakaera 2018ko ekitaldian:

Euroak milakotan

ENTITATEA	SALDOA			SALDOA		
	17.12.31	AMORTIZ.	BERRIAK	18.12.31	% INTERESA	EPEMUGA
EAE: Defizitari aurre egiteko mailegua	3.554	(1.185)	-	2.369	Euriborra	2020
EAE: "Euskampus" mailegua	2.859	(340)	-	2.519	% 1,41	(*) 2025
MICINN: Itzuli beharreko aurrerakinak	3.975	(107)	1.885	5.753	-	2021
MICINN: Innocampus programa	8.404	(1.008)	-	7.396	% 1,17	(*) 2025
ZORPETZEA	18.792	(2.640)	1.885	18.037		
Epe motzeko iraungipena duten saldoak (ikus A.11)	2.640			2.772		
Epe luzeko iraungipena duten saldoak (ikus A.11)	16.152			15.265		

(*) 3 urteko gabealdia



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.10 ZORDUNAK

Aurrekontuko zordunak

Aurrekontuko zordunen osaera antzintasun eta kontzeptuen arabera honako hau da:

KONTZEPTUA	AURREK. ITXIAK	Euroak milakotan	
		2018	GUZTIRA
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK	1.306	2.907	4.213
Kanpoko kontratuak.....	1.130	2.585	3.715
Bestelako tasak eta sarrerak.....	176	322	497
DIRULAGUNTZA ARRUNTAK	11.546	44.160	55.706
Estatua	1.756	2.971	4.727
EAE: Kontratu-programak.....	1.641	4.466	6.107
EAE: Besterik	1.430	28.573	30.003
Europako Erkidegoa.....	5.340	5.282	10.622
Foru aldundiak eta udal erakundeak	541	1.535	2.076
Enpresa pribatuenak	283	1.278	1.561
Beste dirulaguntza arrunt batzuk	555	55	610
ONDARE SARRERAK	40	139	179
KAPITALEZKO TRANSFERENTZIAK	921	8.328	9.249
Estatua	764	372	1.136
EAE	-	7.753	7.753
Besterik	157	203	360
PASIBO FINANTZARIOEN BARIAZIOA	-	2	2
ZORDUNAK GUZTIRA	13.813	55.536	69.349
Kaudimengabez. zuzkid.....			(4.610)
KUDEAKETA ERAGIKETENGATIKO ZORDUNAK			64.739

Aurrekontuz kanpoko zordunak

Aurrekontuz kanpoko zor saldoek honako bilakaera hau izan dute ekitaldian zehar:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	SALDOA 17.12.31	EKITALDIKO BARIAZIOA	SALDOA 18.12.31
Langileei emandako beste aurrerakin batzuk.....	784	(220)	564
Foru Ogasun zorduna BEZagatik	7.004	339	7.343
Bestelako zordunak	2.112	366	2.478
Ekitaldiko tasengatiko sarrerak N+1 (ikus A.6).....	1.055	159	1.214
ZORD. ETA KOBR. B. KONTU BATZ. GUZT. PARTZIALA (balantz. arab.)	10.955	644	11.599
Langileei emandako maileguak (ikus A.8).....	1.376	(86)	1.290
Kutxa finkoko funtsen zuzkidura (ikus A.12)	771	(36)	735
Zor saldoak, balantzean kontu hartzekodunetatik garbi	591	2.451	3.042
Ekitaldiko tasengatiko sarrerak N+1 (ikus A.6).....	(1.055)	(159)	(1.214)
AURREKONTUZ KANPOKO ZORDUNAK GUZTIRA	12.638	2.814	15.452

BEZagatik zor saldoa 2017 eta 2018ko ekitaldietako likidazioei dagokie.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.11 HARTZEKODUNAK

Hartzekodunen xehakapena ekitaldi itxieran honako hau da:

	Euroak milakotan			
	ZUZK. ETA ZORRAK EPE LUZ.	ZORRA EPEMOTZ.	HARTZEKOD. ETA ORDAINTZ.BST.KNT.B.	GUZTIRA 18.12.31
Aurrekontuko hartzekodunak	-	5.477	7.313	12.790
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	999	710	24.792	26.501
Epe laburreko zorrak, dirulaguntza bihur daitezkeenak	-	68.990	-	68.990
Zorpetze saldoa (ikus A.9)	15.265	2.772	-	18.037
Ibilgetuko hornitzaileak (ikus A.5)	3.072	468	-	3.540
Epe motzeko hornidurak	-	(2.673)	-	(2.673)
Beste txiki batzuk	-	-	(371)	(371)
HARTZEKODUNAK GUZTIRA BALANTZEAREN ARABERA	19.336	75.744	31.734	126.814
Epe luzeko hornidurak				999
Epe luzeko zorrak				18.337
Epe motzeko zorrak				75.744
Hartzekod. eta ordaintz. bst kontu batz.				31.734
EPE LUZE ETA MOTZA GUZTIRA				126.814

“Epe laburreko zorrak, dirulaguntza bihur daitezkeenak” idazpurua, 69 milioi euroren zenbatekoduna, ekitaldi itxierako diruzaintza geldikin berariazkoari dagokio, hau da, gauzatzeko dauden gastu edo inbertsioei, baina zeinentzat dagokion finantzaketa jada jasoa baita.

Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak

Aurrekontuz kanpoko hartzekodunen saldoek honako bilakaera hau izan dute ekitaldian zehar:

	Euroak milakotan		
KONTZEPTUA	SALDOA 2017.12.31	EKITALDIKO BARIAZIOA	SALDOA 2018.12.31
PFEZ kontzeptuan Ogasun Publiko hartzekoduna	7.114	(55)	7.059
Gizarte Segurantzza hartzekoduna	14.431	967	15.398
2012ko abenduko aparteko paga	(7)	-	(7)
Eskubide pasiboak eta MUFACE	861	(126)	735
Aplikatzeko dauden sarrerak	2.221	(1.156)	1.065
Langileen kalteordain eta auzietarako zuzkidurak	848	151	999
Epe laburrera jasotako bermeak eta gordailuak	766	(95)	671
Bestelako hartzekodunak	599	(60)	539
AURREKONTUZ KANPOKO SALDO HARTZEKODUNAK	26.833	(374)	(*) 26.459

(*) Kopuru honi aurrekontuz kanpoko hartzekodun modura ageri ez diren 42 mila euro gehitu behar zaizkio, 26.501 mila euro eginez (balantzearen arabera).



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.12 DIRUZAINZA ETA ONDARE SARRERAK

EHUren diruzaintza ekitaldi itxieran modu honetara xehakatzen da:

	Euroak milakotan
	SALDOA
KONTZEPTUA	18.12.31n
Kutxa eta banku-kontuak.....	28.228
Kutxa finkoko funtsen zuzkidurak.....	735
GUZTIRA	28.963

2018ko abenduaren 31n 240 banku-kontu zeuden irekita.

Hona hemen 2018 eta 2017ko ekitaldietan erregistraturiko ondare-sarrerren xehakapena:

	Euroak milakotan	
SARRERA	2018	2017
Eraikinen alokairua	543	388
Emakiden eta aprobetxamendu berezien produktuak.....	319	450
Salmentak (erosketen gaineko deskontuak)	66	45
GUZTIRA	928	883

A.13 AURREKONTUAREN ETA ONDARE EMAITZAREN ARTEKO KONTZILIAZIOA

Kontabilitate orokor publikotik eskuratutako ekitaldiko kontularitzako emaitzaren eta aurrekontuko emaitzaren arteko kontziliazioa ondoko taulan jaso dugu:

	Euroak milakotan
AURREKONTUAREN EMAITZA	(8.642)
INBENTARIOKO MUGIMENDUAK	
Inbertsio errealak, besterentzeetatik garbi	15.487
Amortizazioak.....	(30.913)
MUGIMENDU FINANTZARIOAK	
Pasibo finantzarioen bariazioa.....	2.640
Maileguen itzulketa.....	463
Izakeren bariazioa	(55)
Kaudimengabeziatarako zuzkiduraren bariazioa.....	218
Ibilgetu finantzarioaren narriadura	(22)
Tasa akademikoen aldizkakotzea	2.298
Itzuli beharreko aurrerakinak	(1.885)
Dirulaguntzak sarreretara egozteak.....	1.621
Epai judizialaren zuzkiduraren itzulketa	2.566
DOIKETAK ETA ERREGULARIZAZIOAK	
Egikaritutako berariazko geldikin:.....	6.565
BESTELAKOAK	(388)
EKITALDIKO EMAITZA	(10.047)



A.14 ADMINISTRAZIOKO KONTRATAZIOAREN ANALISIA

A.14.1 KONTRATAZIO ESPEDIENTEAK

Administrazioko kontratazioaren araudia bete dela egiaztatu dugu 17 espedienteren lagina aztertuta, 2018ko ekitaldian esleitutakoak:

2018AN FISKALIZATUTAKO ESPEDIENTEAK		Euroak milakotan				
XEDEA	ZENBAT.		ESLEIP.		AKATSAK	
	ESLEIP.	2018 EGIK.	DATA	PROZED.		
OBRAK						
1. Arabako Campuseko eraikin. lokalak zaharber. lanak (**)..	246	260	ira-18	Irekia	A1,2	
HORNIDURAK						
2. Bizkaia eta Gipuzkoako Campuserako informatikako kontsumigarriak hornitzeko esparru-akordioa (2+1 urte) ...			mar-18	Irekia	B1	
1. lotea: jatorrizko kontsumigarriak.....	334	156				
2. sorta: birlanutako kontsumigarriak.....	210	50				
3. Unibertsitateko liburutegia kudeatzeko sistema (3+3 urte) ..	213	72	ots-18	Irekia		
4. Hiru Campusetan ikerketarako animaliak erosteko esparru-akordioa (2 + 2 urte).....				Irekia	A4,3 B1	
1. sorta: karraskariak	303	57	ots-18			
2. lotea: lagomorfoak	-	-	Hutsik			
5. Orade produktuak mugagabe zabaltzeko eskubidea (2+2 urte).....	376	188	mai-18	Irekia		
6. Kumuneko papera, bobinak, esku-lehorgailuak, paperezko eskuoihalak eta eskuak garbitzeko jela hornitzeko esparru-akordioa (2+1 urte).....	234	69	uzt-18	Irekia		
7. VMware eta Red Hat lizentzia eta harpidetzak hornitu eta mantentze-lana (3+2 urte) (**).....			ira-18	Irekia	A1,4	
1. lotea: VMware kontratu euskarria eta lizentziak	73	24				
2. sorta: Red Hat kontratu euskarria.....	178	59				
8. Erreflektometria eta SAXS konfigurazioko lagin polikristalinozko difraktometroa (**).....	218	-	aza-18	Irekia	A1,4	
9. Springer aldizkako argitalpen elektronikoetara harpidetza (1+1 urte).....	446	446	mar-18	PGPN	C2	
1. luzapena: 19.01.01etik 19.12.31ra arte	454	-	urr-18			
10. DNS DHCP azpiegituren berritze teknologikoa	124	124	ots-18	PGPN		
11. Erreproduzigarritasun handiko HPLCa	57	57	eka-18	EAEr.		
12. Kromatografiako ekipoa	105	105	eka-18	EAEr.		
ZERBITZUAK						
13. Instalazio babesgarrien mantentze-lan integrala Bizkaiko Campuseko suteen aurkako (2+2 urte).....	273	30	urr-18	Irekia		
14. Zentro eta aretoen garbiketara (2+2 urte) (**).....				Irekia	A1	
1. lotea: Arabako Campusa	3.774	46	aza-18			
2. lotea: Gipuzkoako Campusa	7.405	-	aza-18			
3. lotea: Bizkaiko Campusa: Leioa eta Zamudio.....	8.093	-	aza-18			
4. lotea: Bizkaiko Campusa: Bilbo, Gurutzeta eta Portugalete	6.083	76	aza-18			
5. sorta: Carlos Santamaría eraikina eta Donostia/SS pistak .	696	-	ots-19			

.../...



2018-AN FISKALIZATUTAKO ESPEDIENTEAK

Euroak milakotan

XEDEA	ZENBAT.		ESLEIP.		AKATSAK
	ESLEIP. 2018 EGIK.		DATA	PROZED.	
15. Aseguru pribatuen bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzuak (4+1 urte).....	(*) 5.780	450	eka-18	Irekia	
16. Arabako Campuseko zentroetan kafetegia (5 urte) (**)				Irekia	A1
1. sorta: Letren Fakultatea	(***) Kanona	-	urr-18		
2. sorta: Farmazia Fakultatea	-	-	Hutsik		
17. UNIVERSITAS XXI-Ekonomikoaren mantentze-zerbitzua (1+1 urte) (**).....	266	144	eka-18	PGPN	A1,4 C2
GUZTIRA	35.941	2.413			

Zenbatekoak BEZa barne

(*) Aleko prezioak: esleipen zenbatekoan pleguen arabera kontratuaren aurrekontua zein den adierazi dugu, BEZa barne.

(**) SPKLren arabera izapidetutako espedienteak (2018-03-09 ondoren abiarazitakoa).

(***) 420 euro/hileko.

PGPN Publikotasunik gabeko prozedura negoziatua

EAEr. Esparru-akordiotik eratorritako kontratua

Gainera, lehenagoko ekitaldietan fiskalizazio-gai izan ziren 10 espedienteren gaineko jarraipena egin dugu, 2018ko ekitaldian egikaritzen jarraitzen zutenena:

AURREKO EKITALDIETAN ESLEITUTAKO ESPEDIENTEAK

Euroak milakotan

XEDEA	ESLEIPENA		EGIKARITZEA		AKATSAK
	URTEA	ZENBAT.	2018	2018.12.31	
OBRAK					
18. Esparru-akordioa 3 campusetan zaharberritze, konponketa, zaintza edo mantentze lanak egiteko, 50.000 euroz azpitiko aurrekontuarekin, BEZa kenduta (1+1 urte).....	abe-17	605	554	554	
HORNIDURAK					
19. Informatikako ekipamend. esparru-akordioa (3+1 urte).....	2013	(*) 6.669	2.140	12.171	B1 C1
1. luzapena: 16.03.25etik 17.03.24ra arte	mar-16	(*) 2.223			
20. Laborategiko gasa hornitzeko esparru-akordioa (4 urte).....	2015	(*) 1.428	622	2.573	B1,2
21. Esparru-akordioa, Unify fabrikatzailearen OpenStage telefono-terminalak eta beste era bateko terminal eta osagarriak hornitzeko (instalaziorik gabe) (2+1 urte)	2017	(*) 1.000	237	442	
ZERBITZUAK					
22. Eraikuntza eta instalakuntzen garbiketa (2+2 urte).....	2014	22.096	11.257	45.379	
1. luzapena: 16-12-15etik 17-12-14ra arte	eka-16	11.048			
2. aldaketa	ots-16	528			
2. aldaketa	ira-16	79			
23. Kudeaketa akademikoaren (GAUR), espedienteen (TRAINERA) eta ikerketaren (IKERTU) kudeaketa sistemako modulu multzoaren mantentze-zerb. zuzentzaile, ebolutibo eta egokitzaila (2+2 urte).....	2016	(*) 1.512	552	1.378	
1. luzapena: 18-05-23tik 19-05-22ra arte	mar-18	756			



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKO EKITALDIETAN FISKALIZATUTAKO ESPEDIENTEAK

Euroak milakotan

XEDEA	ESLEIPENA		EGIKARITZEA		AKATSAK
	URTEA	ZENBAT.	2018	2018.12.31	
24. EHUko Miguel de Unamuno ikastetxe nagusian sukalde eta jangela zerbitzua (2 + 2 urte).....	abu-17.	(*) 1.157	570	751	
25. EHUko campus, zentro eta aretoetan segurtasun eta zaintza zerbitzua (2 + 2 urte).....	eka-17	7.125	3.603	5.110	
26. UNIVERSITAS XXI-Ekonomikoaren mantentze-zerbitzua (1+1 urte).....	uzt-17	173	74	152	
27. EHUko urteko kontuen kanpoko auditoria, 2016 eta 2017ko ekitaldietakoa (2+1 urte).....	urt-17	136	68	136	C2
GUZTIRA		56.535	19.677	68.646	

Zenbatekoak BEZa barne

(*) Aleko prezioak: esleipen zenbatekoan pleguen arabera kontratuaren aurrekontua zein den adierazi dugu, BEZa barne.

Euroak milakotan

AKATSAK	ESLEIP. ZENBAT.	ESPEDIENTE KOP.	ZENBAT.
ESPEDIENTEA			
A1 SPKL indarrean sartu ostean abiarazitako espedienteak eta elektronikoki izapidetu gabea.	6		27.032
A2 Eskaintzak aurkezteko epea ezarritako gutxieneko epea baino txikiagoa da (SPKLren 159.3 art.)	1		246
A3 Ez dira esparru-akordio honetatik eratorritako kontratuak esleitzeko irizpideak finkatu (SPKLTBren 198.4.e) art.)	1		303
A4 Administrazio-klausulen agirietan ez dira xehakatzen kostu zuzenak, zeharkakoak, izan daitezkeen bestelako gastuak eta soldaten kostua, kasua bada (SPKLTBren 100.2. art.).....	3		734
EGIKARITZEA			
B1 Ez dago harrera-aktarik (SPKLTBren 222. artikulua) (*)	4		3.025
B2 Fakturatutako kopurua esleitutako kopurua baino handiagoa da (**).....	1		228
ESPEZIFIKOAK			
C1 Kontratu berriaren lizitazioan eta esleipenean izandako atzerapenak 2017ko martxoaren 24an iraungitako kontratu baten gastuak aitortu behar izatea eragin du (*).....	1		2.140
C2 Irizpenetan aipatutako berariazko akatsak	3		848

(*) Akats honen zenbatekoa 2018an egikaritutako zenbatekoa da.

(**) Akats honen zenbatekoa da esleitu edo aurrekontuan jasotako zenbatekoa gainditzen duen zenbatekoa (BEZa barne).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.14.2 BESTELAKO GASTUAK

Kontratu txikiaren figura baliatuta gauzatutako kontratazioak aztertzean ikusi da ekitaldian zehar egindako erosketa batzuetan, urteko bolumena aintzat hartuta, kontratazio prozedura berrikusi behar litzatekeela.

Euroak milakotan				
KONTZEPTUA	UNIT.KOP. ORG.	HIRUG. KOP.	FAKTURA KOP.	ZENBAT.
Laborategiko materiala	493	22	5.549	2.096
Bulegoko materiala	397	3	2.436	466
Kopiagintza lanak	176	2	554	203
Erakunde materiala, serigrafiatutako produk., etab.	187	1	663	334
Itzulpen lanak	13	1	36	179
Altzariak eta bulegoko ekipoak	77	126	516	782
Klimatizazio sistemen mantentze- eta konponketa-lanak	3	1	79	141
Ikerketa eta irakaskuntzarako ekipamendua	63	8	108	506
GUZTIRA	1.409	164	9.941	4.707

Bestalde, 2. eta 6. kapituluetan aitortutako obligazioak aztertzean ikusi da atzerapenak izan direla kontratu berriak lizitatu eta esleitzean eta horren ondorioz, iraungitako kontratuen kontzeptuko gastuak aitortu behar izan dira; horien lizitazioa, batzuetan, aurreko kontratua iraungi ostean abiarazi da.

Euroak milakotan		
KONTZEPTUA	EPEMUGA	
	KONTRATUA	ZENBAT.
Bidaia eta ekitaldien antolaketa	18.02.02	2.977
Carlos Santamaría zentroa garbitzeko zerbitzua	17.12.31	323
Ekipamendu zientifikoaren mantentze-lanak	17.01.27	132
Azalera berdeen mantentze-lanak	17.07.23	65
GUZTIRA		3.497

- 2018an ondotik zehaztutako zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratuak luzatu edo gauzatu dira, zerbitzu horretara emandako ondasunak baliatuta, denbora jakin baterako eman gabe (SPKLren 29. artikulua edo lehenagoko araudi baliokidea eta EALren 72. artikulua):

XEDEA	Urtea
	ESLEIPENA
1. Kafetegi eta jatetxe zerbitzua Bilboko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean.....	1996
2. Kafetegi-jangela zerbitzua Donostiako Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean eta Gasteizko Letren Fakultatean	1999
3. Kafetegi-jangela zerbitzua Gipuzkoako Campuseko gelategian	1999
4. Merkataritzako lokala unibertsitateko pabiloian eta bulego materiala Arabako campuserako ..	1999
5. Kafetegi zerbitzua Gasteizko Irakasle Eskolako Unibertsitate Eskolan.....	2000
6. Kafetegi-jangela zerb. Bizkaiko campus. zentr. (Nautikako eta Itsasontzi Makinetako GET).....	2000
7. Kopiagintza EHU – Industria Ingeniarien Goi Eskola Teknikoko zentroetan	2001
8. Kopiagintza zerbitzua Gasteizko Letren Fakultatean	2004
9. Arabako Campuserako kopiagintza zerbitzua.....	2005
10. Oñatiko Enpresen Unibertsitate Eskolan jangela-kafetegi zerbitzua, Donostiako Ibaetako Campusa	2005
11. EHUko ordezkari-objektu eta kirol-arropa dendaren kudeaketa osoa	2006
12. Kafetegi zerbitzua Arabako Campuseko Farmazia Fakultatean	2006
13. Kafetegi zerbitzua Gipuzkoako Campuseko Kimika Fakultatean	2007
14. Kopiagintza zerbitzua Gipuzkoako Campuseko Arkitekturako Goi Eskola Teknikoan	2011
15. Jangela-kafetegi zerbitzua Donostiako Irakasle Eskolan	2013
16. Arabako Campuseko “Pabiloia” izeneko eraikinean jangela-kafetegi zerbitzua	2014

A.15 FUNDAZIOAK

Medikuntza eta Zientzien Historiaren Euskal Museoa Fundazioa

EHUko errektoreak 1994ko ekainaren 28an Fundazioa sortu zuen, EHUren 1993ko maiatzaren 11ko Gobernu Batzordearen erabakia betez.

Fundazioaren helburua Medikuntza eta Zientzien Historiaren Euskal Museoa gaitu, eutsi eta garatzea da.

Hasierako zuzkidura EHUK emandako 3.000 eurok osatzen dute; baita, Medikuntza eta Zientzien Historiaren Museoaren funtsak osatzen zituzten ondasunek ere, zeinak Fundazioari ekarri baitzaizkion inbentarioan jaso ostean. Ondasun hauek 1998an 595.100 euroren balioa zuten.

Fundazioaren Errektoretza-kontseilua 11 kidek osatzen dute: EHUko 6k; Bizkaiko Kulturako foru diputatuak; Bilboko Medikuntza Zientzien Akademiako lehendakariak; Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Bizkaiko lehendakariak; Euskal Ikasketen zuzendariak; eta museoko dohaintza-emaileen ordezkari batek.



EHUren Uda Ikastaroak Fundazioa

Fundazioa 1993ko otsailaren 22an sortu zen, EHUK 30.051 euroren ekarpena eginez. Fundazioak helbidea Donostiako Miramar Jauregian du eta helburua irakaskuntza eta unibertsitate izaerako jarduerak antolatzea du, nagusiki udakoak. Patronatuko kide guztiak EHUkoak dira.

Legeria

- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 6/2001 Lege Organikoa, abenduaren 21ekoa, Unibertsitateei buruzkoa.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoa.
- 100/2007 Dekretua, ekainaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duena.
- 101/2007 Dekretua, ekainaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duena.
- 17/2011 Dekretua, otsailaren 15ekoa, Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuak onartzen dituena.
- 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko Aurrekontu Araubidearen Gaietan Indarrean dauden Legezko Xedapenen Testu Bategina onartu eta EAEko Sektore Publikoko Fundazio eta Partzuergoei ezargarrria zaien aurrekontuko araubidea arautzen duena.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onesten duena.
- 2013ko martxoaren 26ko Ebazpena, Kontuen Kontabilitate eta Auditoria Institutuarena, Irabazi Asmorik Gabeko Erakunde Txiki eta Ertainen Kontabilitate Plan Orokorra onartzen duena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.
- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bategina onesten duena.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 2011ko urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onesten duena.
- 9/2016 Legea, ekainaren 2koa, Euskal Herriko Fundazioei buruzkoa.
- 2/2017 Legegintzako Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.15.1 LANGILERIA-GASTUAK

Hona hemen 2018ko ekitaldi itxieran langile-gastuen eta plantillaren xehakapena eta aurreko ekitaldiarekiko konparaketa:

ENTITATEA	Euroak milakotan				Langile kop.	
	LANGILERIA-GASTUAK		LANGILERIA 12.31N		GOI KARGUD. 12.31N	
	2018	2017	2018	2017	2018	2017
Medikuntzaren Museoa Fundazioa.....	22.372	22.150	1	1	-	-
EHUren Uda Ikastaroak Fundazioa.....	411.705	400.581	(*) 11	(*) 11	1	1
GUZTIRA	434.077	422.731	12	12	1	1

(*) 2018an eta 2017an 6 aldizkako langile finko barne hartzen ditu.

A.15.2 KONTRATAZIOA

EHUren Uda Ikastaroak Fundazioa

Administrazioko kontratazioaren araudia bete dela egiaztatu dugu 3 espedienteren lagina aztertuta:

XEDEA	2018-AN FISKALIZATUTAKO ESPEDIENTEAK					Euroak
	ZENBAT.		ESLEIP.		AKATSAK	
	ESLEIP.	EGIK. 2018	DATA	PROZED.		
ZERBITZUAK						
1. Fundazioarentzat bidaiak antolatzen dituzten enpresak kontratatzeako esparru-akordioa (4 + 2 urte).....	(*) 528.000	146.756	urt-18	Irekia	A1,2	
2. Edizio eta argitalpen zerbitzua (4+2 urte).....	(*) 169.140	59.578	urt-18	Irekia	A3	
3. Plataformako txost. eta webgunean hobekuntzak egitea	38.997	38.997	-	Zuzena		B
GUZTIRA	736.137	245.331				

(*) Aleko prezioak: esleipen zenbatekoan kontratuaren aurrekontua zein den adierazi dugu, BEZa barne.

Gainera, lehenagoko ekitaldietan fiskalizazio-gai izan ziren 2 espedienteren gaineko jarraipena egin dugu, 2018ko ekitaldian egikaritzen jarraitzen zutenena:

XEDEA	AURREKO EKITALDIETAN FISKALIZATUTAKO ESPEDIENTEAK				Euroak
	ESLEIPENA		EGIKARITZEA		
	URTEA	ZENBAT.	2018	2018.12.31	AKATSAK
ZERBITZUAK					
4. EHUren 2018ko uda ikastaroetarako catering zerbitzua	aza-17	(*) 49.500	67.076	67.076	
5. EHUren 2018ko uda ikastaroetarako areto-laguntzaileen zerbitzua	aza-17	(*) 60.500	47.958	47.958	
GUZTIRA		110.000	115.034	115.034	

(*) Aleko prezioak: esleipen zenbatekoan kontratuaren aurrekontua zein den adierazi dugu, BEZa barne.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

		Euroak	
AKATSAK		ESLEIP.	ZENBAT.
		ESPEDIENTE KOP.	
ESPEDIENTEA			
A1	Aurreikusitako 4 urteko epea gainditzen duen esparru-akordioa (SPKLTBren 196.3 art.)	1	528.000
A2	Ez dira aldez aurretik esparru-akordiotik eratorritako kontratuen esleipen irizpideak ezarri (SPKLTBren 198.4 art.)	1	528.000
A3	Ez du betetzen aurreikusitako aldatetarako bereizten diren mugak eta baldintzak modu argi, zehatz eta nabarian zehazteko eskakizuna (SPKLTBren 106. artikulua)	1	169.140
ESPEZIFIKOAK			
B	Irizpenetan jasotako akats espezifikoa	1	38.997

(*) Akats honen zenbatekoa 2018an egikaritutako zenbatekoa da.



UPV/EHUREN ALEGAZIOAK 2018 EKITALDIKO FISKALIZAZIO EMAITZEI

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/88 Legean adierazitakoari jarraikiz, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak dokumentu honetan jaso diren alegazioak egin nahi ditu.

Unibertsitatearen antolakuntza egituran, Ikastegiak, Sailak eta Zerbitzuak kudeatzaile ekonomikoak dira, baita ikerketa proiektuez eta kontratuez arduratzen diren pertsonak ere. Hori horrela, egitura horren ezaugarri nagusia da sistema oso deszentralizatu bat edukitzea, aukera ematen diena kudeatzaileei, ikertzaileei eta proiektu sustatzaileei tresna arin eta eraginkorrak erabiltzeko, horrek zaildu egiten badu ere kontrola, eta horretan egiten ari da, hain zuzen ere, prozesuak normalizatzeko eta homogeneizatzeko ahaleginik handiena. Alde horretatik, Herri Kontuen Euskal Epaitegiarekin elkarlanean aritzeak aukera eman du pixkanaka hobetzeko administrazio eta kontabilitateko prozesuak.

Hona hemen egin diren alegazioak, txostenaren ordenari jarraikiz:

TXOSTENAREN ONDORIOEI EGINDAKO ALEGAZIOAK

II. IRITZIA

II.1 LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Langileak

1. *EHUK 2018ko ekitaldian 588.881 euro ordaindu ditu osagarrien eta ordainsarien parekatze kontzeptuan, unibertsitateko irakasleen ordainsariei buruzko abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuan aurreikusitako gabe daudenak (ikus A.3).*

ALEGAZIOA

Osagarri horiek ez daude jasota Unibertsitateko irakasleen ordainsariei buruzko Errege Dekretuan (abuztuko 1086/1989); hala ere, osagarriak ordaindu egin dira Gobernu Batzarrak eta kasu batzuetan Gizarte Kontseiluak onetsi dituztelako, unean-unean irakasle eta ikertzaileen eskakizunei erantzuteko.

2. *2018ko abenduaren 31n aldi baterako lan kontratua zuten Irakasle eta Ikerlariak irakasle-plantillaren % 40ko muga gainditzen zuten, ULoren 48.5 artikuluan finkatutakoa, ULOALOk ematen dion idazkeran.*

ALEGAZIOA

Halaxe da, aldi baterako lan kontratua duten irakasle eta ikertzaileak plantillaren % 40a baino gehiago dira, baina honako gai hauek hartu behar dira kontuan:



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

1. Adin handiko piramide bat, derrigorrezko zein borondatezko erretiro ugari dituena. Aurrekoaren ondorioz, plaza finkoak hutsik geratzen dira (hainbat arrazoirengatik, baina batez ere erretiroagatik), eta Laguntzaile eta Irakasle Laguntzaileen kategorietako aldi baterako lanpostu bihurtzen dira, unibertsitate karreraren hasierarako ezarritako kategorietan.

Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legeak honako hau jasotzen du zioen azalpenean (IV, 1 atala): "Unibertsitate karrera baten definizioa. Esparru horretan, laguntzailea doktorego tesia egiteko prestakuntza jasotzen ari den langile gisa konfiguratu da, ia modu eksklusiboan, eta irakasle laguntzaile doktorea, Legean irakasle atxikia esaten zaiona, unibertsitateko karreraren hasten diren pertsonentzat gordetako kategoria gisa".

Ildo beretik doa irakasle eta ikertzaileen II. Hitzarmen Kolektiboa (18.4 artikulua).

Hala ere, hitzarmenak berak (18.5 artikulua) ezartzen du nola finkatuko diren plaza horiek plaza finkoetan. "Irakasle atxikiaren plaza finkatzeak unibertsitateko irakasle agregatuen kategoriako edo irakasle titularren kidegoko plaza bat sortzea ekarriko du"

2. Ezin da plantilla finkatu, behar diren plazak Lan Eskaintza Publikoan sartuta, Euskal Herriko Unibertsitatearen aurrekontu marjinak soilik kontuan hartuta; izan ere, Estatuaren Aurrekontuen Legeak murrizketak ezartzen ditu urtero (birjarpen tasa) langile iraunkorrak sartzeko eta, aldi berean, unibertsitateko irakaskuntzaren zerbitzu publikoa ezin da arretarik gabe geratu eta beharrezkoa da, ondorioz, behinbehineko modalitateen bidezko kontratazioa.

Hortaz, esate baterako, 2018. urtean, uztailaren 3ko 6/2018 Legeak, 2018. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrenak, 19.Bat.2 artikuluan, % 100eko birjartze tasa zehaztu zuen aurreko ekitaldian zenbait baldintza bete zituzten administrazio publikoetarako, hau da: aurrekontu egonkortasun helburuak, zor publikokoak eta gastu araua bete zituzten administrazio publikoetarako.

3. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legean ezarritakoaren arabera, deialdia egin duen organoa edozein dela ere (Ministerioa, Eusko Jaurlaritza...), bai doktoratu aurreko kontratua bai Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Espainiako Sistemari sartzeko kontratua, biak aldi baterakoak, atxikipen-guneak egiten ditu, kasu honetan UPV/EHUK.

Administrazioko Kontratazioa

3. Bestalde, 2018ko ekitaldian kontratua indarrean zuen hornidurako kontratu batean, esleitutako zenbatekoa 228.474 euroan gainditzen duten gastuak azaleratu dira (ikus A.14.1).

ALEGAZIOA

20. espedienteari dagokio, UPV/EHUko hainbat ikastegitan laborategiko gasa hornitzeko Esparru Akordioa.

Ez da kontratu bat zentzu hertsian eta, beraz, haren analisisa edo fiskalizazioa ez litzateke egin behar administrazio kontratu baten irizpide berberekin. Esparru Akordioa tresna bat da kontratazioa teknikoki arrazionalizatzeko, eta sektore publikoko kontratazioaren arloko legeriak jasotzen du, 2004/18/EE Zuzentarauak (gaur egun, 2014/24 Zuzentaria) jasotzen duen modu berean, ezaugarri hauekin:

- Kontratazio publikoaren arrazionalizazio teknikorako sistemetako bat izatea, non, kontratazio organoak egin beharreko kontratu guztien esleipena arautuko duten baldintzak ezartzen diren, enpresaburu batekin edo gehiagorekin egindako itun baten bidez.
- Esparru akordio baten gehieneko indarraldia lau urtetakoa da, behar bezala arrazoitutako salbuespenetan izan ezik.
- Akordioaren jatorrizko parte diren enpresekin edo akordioa arautzen duen pleguan identifikatu diren eta lizitazio deialdian hala jaso den sektore publikoko erakundeekin soilik egin ahal izango dira kontratuak.
- Ezin da esparru akordioan oinarritutako kontratuetan funtsezko aldaketarik egin.

Esparru akordioa enpresaburu bakar batekin edo batzuekin egin daiteke. Bigarren kasu horretan, aipatutako akordioan oinarritutako kontratuak beste lizitazio batekin egingo dira, salbu eta esparru akordioaren pleguak baldintza objektiboak aurreikusten baditu zehazteko zein enpresa izan beharko den kontratuaren esleipendun, eta prestazioa egikaritu; kasu horretan, ez da beharrezkoa izango beste lizitazio bat egitea.

Kontu Publikoen Euskal Epaitegiaren txostenari egindako alegazioak azpimarratzen dira, "Esparru akordioa" irudiari eta lizitazio aurrekontuak eta balio zenbatetsiak duten zereginari buruzkoak, baina alegazio horiek ez dira aintzat hartu, horri buruz eman diren txosten askoren aurka. (Txostenak erants daitezke: kontratazio batzorde aholkulariaren 17/12 txostena, Balear Uharteetako Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordearen 9/2013 txostena, 2014ko ekainaren 19koa).

Negozia arauemailea edo kontratu aurrekoa da, arau kontratuaren kategorian oinarri duena, Estatu Kontseiluak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Aurreproiektuari buruzko maiatzaren 25eko 514/2006 Irizpenean adierazi zuen bezala. Hau da, prestaketa kontratu bat da eta, bertan ezartzen dira, etorkizuneko kontratuak egitea ahalbidetzen duten arautegi edo baldintza uniforme eta orokor batzuk, alderdiek modu jakin batean kontratatzeke betebeharra izan dezaten.

Madrilgo Erkidegoko Kontu hartzailera Nagusiaren 2017ko martxoaren 13ko txostenak, esparru-akordioei buruzkoak, dio esparru akordioetan jasoko dela zein bere "balio zenbatetsia":



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Balio zenbatetsia komunitate kontzeptu bat da, eta, besteak beste, arautegi harmonizatuaren mendeko kontratuak (SARA izeneko kontratuak) zehazten ditu. SPKLTBren 88.8 artikulua araberak, "Esparru akordioetarako eta eskuratzeko sistema dinamikoetarako, horiek iraun bitartean aurreikusitako kontratu guztien gehieneko balio zenbatetsia hartuko da kontuan, balio erantsiaren gaineko zerga sartu gabe". Hori dela eta, esparru akordioaren balio zenbatetsia esparru akordioaren kontratazio espedientearen prestaketa eta esleitze faseetan aritzen da, komunitate publikitatearen atalaseari dagokionean eta, bere kasuan, baliabideen erregimenerako".

Ildo horretan, Kontu Publikoen Euskal Epaitegiaren txostenaren ondorioa ez litzateke egokia izango, "Esleitutako zenbatekoa gainditzen duten gastuak" aipatzen baititu:

1. Aipatzen den espedienteak ez da kontratuak,
2. Esparru akordioa da eta babesten ditu bere indarraldian formalizatzen diren kontratuak. Ez dago "esleitutako aurrekonturik" ekitaldia hasi aurretik; gehienez ere, haren babesean esleituko diren kontratuen balioaren zenbatespena egingo da, indarrean daudeneko urteetan.

Hainbat txostenetan islatutako interpretazio hori Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/17 Lege berrira eraman da. Lege horren zioen azalpenean adierazten denez, aurreko testu bateginean kontratuen balioa aipatzeko erabiltzen ziren adierazpenak berrikusi dira homogeneizatzeko, adibidez "zenbatekoa" edo "kontratuaren zenbatekoa", eta kasu gehienetan "balio zenbatetsia" kontzeptura bideratu da, berori zuzena delarik. Kontzeptu hori erabat mugatuta dago lege berrian, bai eta "lizitazioaren oinarritzko aurrekontua" eta "kontratuaren prezioa" ere bai, saihestuz horrela, hauen arteko nahasketarik.

Hala, lizitazio aurrekontuari buruzko 100. artikuluan adierazten da lizitazioaren oinarritzko aurrekontutzat hartuko dela kontratazio organoak kontratuaren arabera konprometitu dezakeen gastuaren gehieneko muga, balio erantsiaren gaineko zerga barne, kontraktorik xedatu ezean, eta gaineratzen du, esparru akordio bat edo eskuratzeko sistema dinamiko bat izapidetu aurretik, ez dela beharrezkoa izango lizitazioaren oinarritzko aurrekontu bat onartzea.

Balio zenbatetsiari buruzko 101. artikulua 13. puntuan adierazten du esparru akordioetarako eta eskuratzeko sistema dinamikoetarako kontuan hartuko dela esparru akordioak edo eskuratzeko sistema dinamikoak iraun bitartean aurreikusitako kontratu guztien gehieneko balio zenbatetsia.

Laburbilduz, lizitazioaren baldintzak AKPPren karatulan eta baldintza teknikoaren agirian ezarritakoak ziren.

Administrazio-klausula zehatzen agiriaren karatulan nabarmendu:

- 1.- kontratuaren xedea.
 - 1.2.- Multzotan zatitzea (bai/ez): Bai, lau multzotan. Multzo bakoitza enpresa bakar bati esleituko zaio.
 1. Lotea: Nitrogeno likidoaren hornikuntza ontzi kriogeniko mugikorretan.
 2. Lotea: Nitrogeno likidoaren hornikuntza ontzi kriogeniko finkoetan.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

3. Lotea: Helio likidoaren hornikuntza ontzi kriogeniko mugikorretan.

4. Lotea: Argon likidoaren hornikuntza ontzi kriogeniko finkoetan.

3.- Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua.

Esparru-akordio bat izaki ez da aurrez zehazten. Edonola ere, urteroko gastu orientagarria berrehun eta laurogeita hamabost mila eurotan (295.000,00 euro), BEZ kanpo, aurreikusten da .

- Lotea: 25.000,00 euro (BEZ kanpo).

- Lotea: 200.000,00 euro (BEZ kanpo).

- Lotea: 50.000,00 euro (BEZ kanpo).

- Lotea: 20.000,00 euro (BEZ kanpo).

4.1.- Prezioa zehazteko sistemak.

Eskainitako gehienezko prezioak (BEZ kanpo), garraioa barne, hurrengoak dira:

lotea: 1.60 euro/litroko.

lotea: 0.4 euro/litroko.

lotea: 8 euro/litroko.

lotea: 3.15 euro/litroko.

Ontzien alokairuek, hurrengo gehienezko prezioak izango dituzte (BEZ kanpo):

a) Ontzi kriogeniko mugikorren alokaitu kuota:

Alokairu kuota urtekoa da.

- Ranger, dewar edo antzerakoak: 100 euro/aleko.

- Botilak 70 euro/aleko.

b) Ontzi kriogeniko finkoen alokairu kuota, telezaintza eta mantenua barne:

Alokairu kuota hilabetekoa da.

- Nitrogeno tanga: 360 euro.

- Argon tanga: 150 euro.

5.1.- Guztizko epea edo muga-eguna: kontratuaren iraupena 4 urtetakoa izango da.

21.- Kontratuaren balio zenbatetsia sektore publikoko kontratuen legearen ondorioetarako (SPKLTBren 88. artikulua): 1.180.000euros.

Espedienteari EBAOn, BOEn eta Kontratatzailearen Profilean eman zitzaion publizitatea. Hau da, Kontu Publikoen Euskal Epaitegiak mantentzen duen gehiegizko fakturazioa ez da horrelakoa, ez baitago 2018ko urterako esleitutako gehieneko aurrekonturik, esparru akordio bat delako eta ez kontratu bat. Lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak ez dira aldatu, esleipenerako prozedura ohiko prozedura ireki baitzen, eta lizitazioak ahalik eta publizitate handiena izan zuen.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Berariazko geldikina osatzen duten aurrekontuko aplikazio ugarien eta ikerkuntza kontratuen amaieraren gaineko kontrol ezaren ondorioz (ikus III.1), ezin ondorioz atera dezakegu 2017ko abenduaren 31ko kontuen zuzentasunaz. Nolanahi dela ere, Kontua osatzen duten kontu-sail eta programen lagin bat aztertzetik ondorioztatu dugu horietako zenbaiti Gastu Orokorretarako Geldikin izaera eman behar litzaiekeela. Ondare-kontabilitateko terminoetan, horrek esan nahi du “Diru-laguntza bihur daitezkeen epe laburreko zorrak” balantzeko kontu-sailaren saldo zati batek (ikus A.11), zenbatetsi ezin denak, ondare garbiaren atal behar lukeela izan.

ALEGAZIOA

Unibertsitateak baditu berariazko geldikinaren atala osatzen duten aurrekontu aplikazio guztiak kontrolatzeko eta bakoitzaren xehetasunak adierazteko sistemak. Nolanahi ere, kontu sail horietako batzuk hurrengo ekitaldian sartu ala ez balioesterakoan irizpide desberdinak egon daitezke.

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

III.1. AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

Aurrekontuko aldaketak

- Aurrekontuko aldaketen erregimena baliatuta 2018ko aurrekontuan 12,3 milioi euroren kredituak zuzkitu ziren eta ekitaldi itxieran kopuru hori kapituluan jasoa gordetzen zen aurrekontuko kontu-sail jakinei esleitu gabe. Hona hemen xehapena:

Euroak milakotan				
KAPITULUA	TXERTAKETAK	GAIKUNTZAK	TRANSFERENTZIAK	GUZTIRA
Langileria-gastuak	6.038	101	5.102	11.241
Funtzionamendu-gastuak	6.242	449	(5.627)	1.064
Transferentzia arruntak.....	4	-	-	4
Inbertsio errealak.....	936	-	(922)	14
GUZTIRA	13.220	550	(1.447)	12.323

Adaketa horiek berariazotasun printzipioa urratzen dute, zeinaren arabera haien eraginpeko aurrekontuko kontzeptuak zeintzuk diren berariaz adierazi behar duten.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOA

Ikerketa proiektuetako gastuak finantzatzeko deialdietako funtsak esleitzean, ez dakigu zer partida zehatz erabiliko den gastua ordaintzeko, kapitulua zehaztuta egon arren, eta horixe da hain zuzen horrela jardutearen arrazoia.

Gero, gastua kontabilizatu baino lehen, haren izaera aztertu, eta dagokion aurrekontu kontzeptuan kontabilizatzen da; ondorioz, gastua behar bezala kontabilizatuta geratzen da.

2018ko ekitaldian 8,4 milioi euroren kreditu-transferentziak egin dira eta horiei birbanaketentzat aurreikusita dagoen izapide erraztua ezarri zaie; ez zegokion, baina, araubide erraztu hori baliatzea, aurrekontuko kapitulu ezberdinen artean egin direlako kreditu aldaketak.

ALEGAZIOA

Birsailkapen horietako gehienak ikerketaren arlokoak dira eta lotuta daude hasieran II. kapituluan esleitzen diren deialdietako diruarekin. Ondoren, erakunde finantzatzailearekin adostuta, langile ikertzaileak kontratatuzeko baimena ematen da. Horretarako, I. kapituluko kontzeptu ekonomikoei esleitutako kredituaren zati bat lekualdatzen da.

Hori dela eta, eta egoera hori erregularizatzeko, 2019ko ekitaldiko aurrekontuaren I. liburukian jasotako printzipio orokorretan eta aurrekontu aldaketetan, Kreditu birbanatzeen atalean, testu hau jasotzen da lehenengo aldiz:

Halaber, kreditu-birbanaketak kreditua transferitzeko erabiliko dira:

- 15010 eta 15011 kontzeptuetatik 16100 eta 16101 kontzeptuetara hurrenez hurren.
- I. kapituluko kontzeptuetatik II. kapituluko kontzeptuetara edota alderantziz, euren lotura kapitulu mailara denean.

Aurrekontua eta Ekonomia Txostena onestean atzerapena

Gobernu Kontseiluak 2018ko ekitaldiko Aurrekontu Proiektua 2018ko otsailaren 1ean onartu zuen eta Kontseilu Sozialak aurrekontua urte horretako uztailaren 20an onartu zuen; ordea, ekitaldia hasi aurretik onartu behar zatekeen. Ekonomia txostenari dagokionez, Kontseilu Sozialak 2019ko urriaren 16an onetsi zuen, EUSLren 106.2 artikuluan aurreikusitako epea gaindituta, urte bakoitzaren lehenengo seihilekoan egitea aurreikusten baitu.

ALEGAZIOA

UPV/EHuren Aurrekontu Proiektua egiteko ezinbestekoa da EAEk egin beharreko ekarpenak ezagutzea, gure UPV/EHuren aurrekontuaren % 76 baitira, gutxi gorabehera. EAEko aurrekontuak 2017ko abenduaren 22an onartu zituen Eusko Legebiltzarrak, eta



horrek atzerapena dakar UPV/EHUREN 2018rako aurrekontu proiektua egiteko eta onartzeko orduan. Txosten Ekonomikoari dagokionez, UPV/EHUK 2018. urteko kontuak aurkeztu zizkion Gobernu Kontseiluari 2019ko ekainaren 29an, auditoretza txostenarekin batera, urteko lehenengo seihilekoan, UPV/EHUREN estatutueta ezartzen den bezala.

Dirulaguntzen erregistroa

- *Unibertsitateak ez du jasotzen dituen dirulaguntzak kontrolatzeko sistema bat, zein dirulaguntzak finantzatzen dituzten aktibo finkoak eta zeinek gastu arruntak bereizteko bide emango diona; honenbestez, ezin identifikatu izan ditugu ekitaldiko emaitzaren kontuan diru-sarreretan dauden dirulaguntzak, zeinak egozteko dauden ondare-igoeretan egon behar bailukete, bi-biak ere Ondare garbiko idazpuruak.*

ALEGAZIOA

Unibertsitateak ahalegina egin du jasotako diru sarrera bakoitza dagokion organikoan kontabilizatzeko, jasotako kapitaleko subentzioak eta funts horiekin egindako kapital gastuak identifikatu ahal izateko. Hurrengo ekitaldietan informazio hori eskuratutako kapital ondasunen zenbateko amortizatuarekin osatu ahal izatea espero da, erregistratutako amortizazio kostuen, kontabilizatutako kapital sarreraren eta balantzean agertu behar duten ondare gehikuntzen artean finantza kontabilitatean beharrezkoa den korrelazioa doitzeko eta ezartzeko.

Guztira 11,2 milioi euroan esleitu eta 2018an 3 milioi euroan egikaritutako lau espedientetan (2, 4, 19 eta 20 zk. espedienteak) ez dago jasoa esparru-akordioaren arabera egindako esleipenen harrera-akta.

ALEGAZIOA

2016ko eta 2017ko ekitaldietako txostenetan egindako ohar bera da, esparru akordioen babespean egindaako eskaerei dagokienez. Horien banakako zenbatekoa Legeak kontratu txikiak zehazteko ezartzen duena baino askoz txikiagoa da.

Aragoiko Autonomia Erkidegoko kontratazio Administrazioetako Aholkularitza Batzordearen irailaren 25eko 19/2013 txostenaren arabera, zeinetan SPKLTBren kontratuak jaso eta likidatzeari buruzko 222.2 eta 222.4 artikuluetan xedatutakoa kontratu txikiei aplikagarri zaien zalantza aztertzen den. Kontratu txikien izaera dela eta, Batzorde Aholkuemaile honek aukera izan zuen gai hori aztertzeke irailaren 19ko 16/2012 txostenean. Bertan, hau esaten zen:

“Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Zioen Azalpenean bertan prozedura sinplifikatu gisa ageri da kontratu txikia, eta honela definitzen da: 50.000 eurotatik beherako kontratua, obra kontratuen kasuan, edo 18.000 eurotatik beherako kontratua, gainerako kontratuen kasuan (betiere BEZik gabe). Kontratu txiki horren prezioa ezin da



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

berrikusi, eta kontratuak ezin du urtebete baino gehiagoko iraupen luzaezina izan; kontratuaren espedientea egiteko eta formalizatzeko, nahikoa izango da gastua onestea eta horri dagokion faktura eranstea, bai eta, obren kasuan, aurrekontua eranstea ere.

Beraz, kontratu txikiaren xedea da administrazio publikoei aukera ematea euren beharrezanean erantzuteko, beharrezan horien zenbatekoa eta iraupena txikia denean. Hala, kontratu txikien bitartez, esleipena jarduteko gaitasuna eta beharrezko prestakuntza profesionala duen edozein enpresariri zuzenean egin ahalko zaio, prozedura sinple eta bizkor baten bitartez, zerbitzu hori eman dezan. Kasu horietan, kontratua publikitate eta konkurrentzia printzipioetatik salbuetsita egongo da”.

Kontratu txikiek bete beharreko arauak APKLANen 72. artikuluan zehazten dira. Hau esaten da bertan:

“1. Kontratu txikietan, dagokion faktura kontratu agiri gisa hartu ahal izango da; fakturak abenduaren 18ko 2402/1985 Errege Dekretuak, Arauaren salbuespenak enpresariak eta profesionalak ordainagiria egin eta emateko duten obligazioa arautzen duenak, ezartzen dituen datuak eta ezaugarriak izan beharko ditu (gaur egun, dekretu hori azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretua;k, fakturazio betebeharrak arautzeko erregelamendua onartzen duenak, indargabetu du).

Edozein kasutan, fakturan honako hauek agertu beharko dira: a) Zenbakia eta, hala badagokio, seriea. Fakturen zenbaketa korrelatiboa izango da. b) Izen-deiturak edo sozietatearen izena, identifikazio fiskaleko zenbakia eta igorlearen helbidea. c) Kontratua egiten duen organoa, helbidea eta identifikazio fiskaleko zenbakia zehaztuta. d) Kontratuaren xedearen deskribapena, zein zerbitzutarako den adierazita. e) Kontratuaren prezioa. f) Jaulkipenaren lekua eta data. g) Harrera egin dela egiaztatzen duen funtzionarioaren sinadura.”

Hori dela eta, kontratu mota honetarako, prozedura sinplifikatu egin da; hala, espedientea honako hauek osatuko dute: organo eskudunak gastua onetsi izanaren ziurtagiriak eta dagokion fakturak. Ekintza horretan kontratuaren likidazioa ere sartuko da. Hori kontuan hartuta, ondoriozta daiteke, prozedura sinplifikatu eta bizkorra denez, SPKLTBren 222.2 artikulua aurreikusten duen formalismoa zenbateko handiagoak dituzten eta ondorioz garrantzitsuagoak diren kontratuentzat dela; kontratu garrantzitsuago horien kasuan, beharrezkoa da jaso izana edo adostasuna adierazten duen ekintza formal bat gauzatzea, hala dagokionean esku hartzailetzaren ordezkariaren laguntzarekin. Kontratu txikien kasuan, ekintza formal horren ordez funtzionario baten sinadura beharko da, prestazioarekin adostasuna dagoela adierazteko.

Hau da, ez dago jasota esparru akordioetan oinarritutako kontratu (eskaera) bakoitzaren harrera akta; izan ere, azaldutakoaren arabera, behar bezala betetzat jotzen da prestazioa behar bezala gauzatu dela jasota uzteko betebeharra, faktura eta albarana (merkataritza trafikoaren ohiko dokumentua) sinatuta, eta administrazioak modu frogagarrian jasotzen du entregatu edo mailegatu dena itundutakoaren arabera dela.

- *Springer argitaletxearen aldizkako argitalpen elektronikoak hornitzeko espedientea, 446.246 milioi euroan esleitu zena (9 zk. espedientea), eskusibotasunagatik publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitu zaio*



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

banaketa eskubideak zituen argitaletxeari. Espedientean dokumentatu egin beharko litzateke argitalpen elektroniko horien interesgarritasuna.

ALEGAZIOA

2016 eta 2017 ekitaldietako fiskalizazioan bezala, argitalpen horiek eskuratzen direla azpimarratzea, eta ez beste batzuk, UPV/EHUK, Goi Mailako Hezkuntzari eta Ikerketari atxikitako erakundea den aldetik, bere jarduerak garatu ahal izateko behar dituelako, eta bere kontratazioa Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren mende dagoen unibertsitate bibliotekak eskatzen du, irakasle ikertzaileen kezka jasotzeko.

- *2016 eta 2017ko ekitaldietako EHUren urteko kontuen kanpoko auditoriaren espedientearen xedean -136.000 euroan esleitutakoan (27. espediente)- ez dira jaso proiektuen auditorienak diren prestazioak eta beste, espediente honen esleipendunak 2018ko ekitaldian 106.501 euroan emandakoak. Auditoriako espedientean lizitazio aurrekontuaren zati bat aleko prezioekin bereiztea gomendatzen dugu, proiektuen auditorietarako”.*

ALEGAZIOA

UPV/EHU lanean ari da proiektuak ikuskatzeko espediente lizitatzeko.

- *Horrezaz gain, 2018ko ekitaldian izaera bertsuko ondasun eta zerbitzu erosketak gauzatu dira, guztira 4,7 milioi eurorenak; gure iritzira, aztertu egin beharko lirateke eta homologatu daitezkeen hornidurak eta aurreikus daitezkeen zerbitzuak identifikatu, hartara kontratazioa prozedura bakar batean egin ahal izateko (ikus A.14.2).*

ALEGAZIOA

Kontu Publikoen Euskal Epaitegiak adierazten duen gastu unitate organikoen sakabanaketak berak eragozten du behar bezala gainbegiratzea eta eranstea. Hala ere, neurri zuzentzaile egokiak ezartzen ari dira, kontratazio espedienteak elektronikoki kudeatzeko backoffice aplikazio bat ezarri, abian jarri, mantendu eta laguntzera bideratutako zerbitzuen kontratua 2020ko abuztuaren 28an formalizatuz.

- *UPV/EHUK ez du kontratu txikien administrazioko kudeaketa osoa egiteko bide emango duen informatikako erremintarik, hau da, eskabidea jasotzen denetik kontratu txikiaren ordainketara artekorik, eta ez du kontratatzailearen profilean argitaratzen kontratu txikiei buruzko informazioa (helburua, iraupena, esleipenaren zenbatekoa eta esleipendunaren identitatea).*



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOA

2020ko abuztuaren 28an formalizatu zen gai horri erantzuteko kontratazio espedienteak elektronikoki kudeatzeko backoffice aplikazio bat ezarri, abian jarri, mantendu eta laguntzera bideratutako zerbitzuen kontratua.

- *Azkenik, azpimarratu behar da gastu-unitate organikoen sakabanatzea aintzat hartuta, beharrezkoa dela EHUK gastuaren egikaritzaren ikuskapena areagotzea, erosketa eta prestazioek legezko estaldura egokia izan dezaten eta, berez, ez dadin gainditu esleipenen zenbatekoa.*

ALEGAZIOA

Aipatutako kontratazio espedienteen kudeaketa elektronikorako backoffice aplikazio bat ezartzeko, abian jartzeko, mantentzeko eta euskarria emateko zerbitzuen kontratuak hori konponduko du.

- *UPV/EHUK 2018an zerbitzu publikoak emateko 16 espediente gauzatu ditu; zerbitzu publiko horiek emateko jabari publikoko ondasunak erabili behar dira; horiek, baina, ez ziren denbora zehatz baterako eman. Gainera, kontratuaren prestazioak eta prezioa justifikatuko duen azterketa ekonomiko eta administratiborik ez da egin; ez eta ondasunak eskura uzteko akta ere, EHUK eta kontratistak izenpetutakoa (ikus A.14.2).*

ALEGAZIOA

Aurreko ekitaldietako txostenetan bezala, berriro esan behar da kontratuei lotuta dagoen ondorengo arautegi bateko parametroak eta kontzeptuak ezin direla fiskalizaziorako erreferentziatzat hartu. Oharra kentzeko eskatzen da, aipatzen diren hirugarrenak UPV/EHUren kontratistak direlako, bere garaian aplikagarria zen araudiaren arabera izapidetutako kontratazio prozeduren esleipendunak.

Hala, A.14.2 ataleko azken laukian transkribatutako zerrendan, lehenengo hamabi espedienteak aurreko kontratu arautegiaren mende daude.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.3 BESTE BATZUK

- *EHUk 2018ko ekitaldian bete du merkataritzako eragiketen batez besteko ordainketa aldia. Nolanahi den ere, guztira 2,7 milioi euroren zenbatekoan egindako 330 ordainketak ez dute betetzen SPKLk agindutako ordainketa-epea.*

ALEGAZIOA

Komeni da aipatzea ordainketa kopuru hori Unibertsitateko ordainketa guztien % 0,45 dela.

III.4 FUNDAZIOAK

- *EHUren Uda Ikastaroak Fundazioak norik bere estatutuetan jaso behar luke EHUri atxikiak daudela, HAAJLren 129. artikuluan xedatutakoa betez.”*

ALEGAZIOA

UPV/EHUri atxikita dagoela agerrarazteko estatutu aldaketa 2020ko abenduan Uda Ikastaroak Fundazioaren Patronatuarekin egingo den bilerara eramango da gai zerrendako puntu gisa.

- *UPV/EHUren Uda Ikastaroak Fundazioaren espediente batean ez dago justifikatua aldi baterako langileen kontratazioak salbuespenezko egoera izan eta premiazko eta ezinbesteko beharrezanez erantzuten dienik, EAOLen 30.3 xedapen gehigarriak agintzen duen moduan. Langileen kudeaketari dagokionez, Patronatuak eskuordetuta zuzendaritzak hartutako erabakiak agiri bidez erasota utzi behar lirateke.*

ALEGAZIOA

2018an, Udako Ikastaroen bolumenak gora egin zuen, eta aipatutako kontratazioa egin behar izan zen. 181 ikastarotatik 199 ikastarotara pasa zen.

HKEEK egindako auditoretzatik abiatuta, non horren berri ematen baita, 2020ko kudeaketa planean langileak kontratatzeke aurreikuspen xehatua jasotzen da. Urteko memorian, egindakoaren berri ematen da, eta Patronatuari aurkezten zaio, onar dezan.

Fundazioaren administratzaile orokorrak langileak kudeatzeko ahalmena du, estatutuen eta dituen ahalen arabera.

Zuzendaritzako bileren aktetan, ekipoan izandako aldaketen berri ematen da.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Aztertutako kontratuetaiko akatsak (ikus A.15.2)

UPV/EHUko Udako Ikastaroen Fundazioan 2018an esleitutako 3 kontratazio-espeditente aztertu dira. Espeditente horien balio esleituak 736.137 euro izan dira guztira, eta aurreko urteetan fiskalizatutako 2 espeditente, 2018an 115.034 euro gauzatu dituztenak. Alderdi hauek nabarmendu behar dira:

- *Bidaiak antolatzen dituzten enpresak kontratatzekeo esparru-akordioan, zeina 528.000 euroan esleitu baitzen, pleguak ez ditu alde aurretik finkatzen esparru-akordiotik eratorritako kontratuak esleitzeko irizpideak. Gainera, espeditente honen iraupenak (4+2 urte) gainditu egiten du esparru-akordioetarako arautegiak aurreikusten duen 4 urteko epea (1. espeditentea).*

ALEGAZIOA

Gai horri heltzeko, honako alderdi hauek bereizi dira:

A. Esparru akordiotik eratorritako kontratuak esleitzeko irizpideak ez zehazteari dagokionez.

Banaketa egiteko, 2017ko irizpide bera erabili zen. Hiru agentzien artean "lizitazio" bat egiteko aukera aztertu zen, baina ez zen egingarria izan, banaketa hori baldintzatzen duten faktore operatibo batzuk daudelako. Erabilitako irizpideak azalduko ditugu:

1. Ikastaro gehienak Donostian egiten dira eta kupoak daudenez bertako ostatueta, komenigarria zen hainbat agentziak data berberetan ez erreserbatzea. Beraz, asten arabera banaketa egin zen.
2. Araban ikastaro gutxi egiten direnez, komeni zen agentzia berak eramatea Arabako ikastaroak. Kasu honetan, Viajes Ecuador, gure kontua kudeatzen duen enpresa zentroa Gasteizen dagoelako.
3. Aldi berean, dinamika espezifikoagatik, komeni zen Kongresuak agentzia bakar batek ere eramatea. Viajes Ecuador, erantzun orokorra emateko gaitasunagatik eta UPV/EHUk homologatutako agentzia izateagatik. Bertan, Udako Ikastaroek kudeatutako fakturen zati bat joan behar dute, antolatzailea UPV/EHUkoa denean eta jarduera antolatzekeo laguntzak jasotzen dituztenean.
4. Ikastaro batzuetan, bidaien eta ostatueta faktura zuzenean zuzendu behar zaio ikastaroaren finantzatzaileari. UPV/EHUk finantzatutako ikastaro baten kasuan, Viajes Ecuador enpresari esleitzen zaio, data horretan harekin kontratua zuten bidaiak agentzietako bat baitzen.
5. Bizkaiko ikastaroetako bidaiak eta ostatuak UPV/EHUk kudeatzen zituen.
6. Ikastaroak Gipuzkoako udalerrietan egiten direnean, Basque Destination deritzonari esleitzen zaizkio, lurraldearen ezagutzagatik.

Azalduetako irizpideak kontuan hartuta, hasierako banaketa egiten da, banaketa ekitatiboa izan dadin saiatuz, eta hiru agentziei bidaltzen zaie. Ez da astero jarduera kopuru bera antolatzen, eta ikastaro guztiek ez dute erreserba kopuru bera behar; beraz, jarduera kopurua ez ezik, kudeatu beharrekeo bolumenta ere kontuan hartzen da.



Hiru agentziak ados daudenez, banaketa ontzat jotzen da.

Banaketa egin ondoren, aldaketak gertatu ziren, ikastaro batzuek data aldatu zutelako edo fakturazio zuzena behar izan zutelako.

B.-Esparru akordioak 4 urte baino gehiago iraungo du, eta aurreikusitako epea 4+2 izango da, bi luzapen posiblerekin:

196.3 artikulua dioenez, "Esparru akordio batek ezingo du lau urte baino gehiago iraun, behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik". Lizitazio horrek denbora asko eta baliabide ekonomiko asko xurgatzen dizkio fundazioari, baliabide gutxi baititu, eta lizitazio horiek prestatzeko kanpoko baliabideetara jotzera behartzen baitu. Hori dela eta, arrazionaltasun ekonomikoko kontu batek justifikatzen zuen esparru akordio honen iraupena legezko gehieneko kopurura luzatzea. Esleitu nahi zen kontratu motarako aurreikusitako gehieneko iraupena eman zitzaion, zerbitzu kontratuak baitziren, gehienez ere, SPKLTBren 3030. artikulua araber, gehienez 6 urteren iraupena izan zezaketen 4 urtetako formularekin gehi 2 urtetako luzapenarekin.

Nolanahi ere, luzapen horiek ez dira nahitaezkoak, eta justifikazio horrek behar besteko zilegitasunik ez duela uste bada, luzapenak ez direlako nahitaezkoak botere esleitzalearentzat, aukerakoak baizik, ez dago kontratua aldatzeko eragozpenik edo, hala badagokio, ez dago eragozpenik luzapen horiei uko egiteko eta esleipendunei jakinarazteko, eta datorren urtean agiri bat prestatzen hasteko, 2022ko urtarrilean eginda egon dadin.

- Guztira 169.140 euroren zenbatekoan esleitutako argitalpen eta inprenta zerbitzuak (2 zk. espedienteak) ez du betetzen aurreikusitako aldaketarako bereizten diren mugak eta baldintzak modu argi eta zehatzean zehazteko eskakizuna.

ALEGAZIOA

Zaila da aldatutako baldintzak zehaztea, baina uste dugu mugak gainulertu egiten direla eta ez doazela bertara aurkezten diren lizitatuak ustez dituzten ahalmenetatik harago. Lizitazioan zehar, ez dakigu gai horrek inolako zalantzarik sortzen zuenik edo argibiderik eskatzen zuenik, beste gai batzuekin gertatu izan den bezala.

Hala ere, pleguen aldaketa edo interpretazio lotesle gisa eskatzen den xehetasuna erantsiko da.

- Uda Ikastaroak Fundazioaren webgunea kudeatu eta hobetzeko plataformako txostenak sortzeko zerbitzua formalki dagokion kontratazio-espedienteak izapidetu gabe kontratatu da, nahiz esklusibotasunagatik lehiatik salbuetsitakotzat jo daitekeen; zerbitzu honengatik 38.997 euro fakturatu ziren 2018an (3.



espedientea). Aplikazioen erosketa mantentze lanekin eta horien hobekuntzekin batera lizitatu beharko litzateke.

ALEGAZIOA

Aplikazioen erosketa horien mantentze eta hobekuntzekin batera lizitatu behar da, baina bere garaian ez zegoen hori egiteko behar besteko bermerik, fundaziorako ad hoc garapena delako eta ez zegoelako eskatutako gaitasun ekonomiko-finantzariarik. Indarrean dagoen SPKLren Programa informatikoen eta aplikazioen jabetza intelektualak lagatuzat jotzeko ahalmena ematen du, baina aplikazio hori eskuratzea lizitatu zenean, jabetza intelektualaren lagapen hori ezin zen legez eskatu.

Gauzak horrela, enpresa horrek jabetza intelektualak duenez, enpresa horri zuzenean esleitzea besterik ez da geratzen. Hori orain arte kateatutako kontratu txikien bidez egin da, eta 2020an zuzendu egin da eta dagokion lizitazioa publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez izapidetu da, SPKLren 168. artikulua babesean. Gai hori zuzen dago eta zuzendu egin da.



ABREVIATURAS

BOPV	Boletín Oficial del País Vasco.
CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
CCAA	Cuentas Anuales.
DA	Disposición Adicional.
EPSV	Entidad de Previsión Social Voluntaria.
ETS	Escuela Técnica Superior.
ETSI	Escuela Técnica Superior de Ingeniería.
EU	Escuela Universitaria.
FEDER	Fondo Europeo de Desarrollo Regional.
GOVA	Gobierno Vasco.
IVA	Impuesto sobre el Valor Añadido.
LCSP	Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.
LOU	Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades.
LOMLOU	Ley Orgánica 4/2007, de 12 de abril, de modificación de la LOU.
LPE	Ley de Patrimonio de Euskadi (Decreto Legislativo 2/2007, de 6 de noviembre, de aprobación del Texto Refundido de la Ley de Patrimonio de Euskadi).
LPGE	Ley 6/2018, de 3 de julio, de Presupuestos Generales del Estado 2018.
LRJSP	Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.
LSUV	Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco.
MICINN	Ministerio de Ciencia e Innovación.
OPE	Oferta Pública de Empleo.
PAS	Personal de Administración y Servicios.
PDI	Personal Docente e Investigador.
PSU	Plan Sistema Universitario.
RD	Real Decreto.
RLCAP	Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.
RPT	Relación de Puestos de Trabajo.
TRLCSP	Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.
TSJPV	Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.
TVCP/HKEE	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
UPV/EHU	Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.



I. INTRODUCCIÓN

La fiscalización de la actividad económico-financiera del ejercicio 2018 de la UPV/EHU se efectúa de acuerdo con la Ley 1/1988, de 5 de febrero, del TVCP/HKEE, estando incluida en su Plan de Trabajo.

La fiscalización abarca los siguientes aspectos:

- Legalidad: en las áreas presupuestaria y contable, personal y contratación administrativa.
- Contables: se analiza si las CCAA de la UPV/EHU se elaboran de conformidad con los principios contables que resultan de aplicación.
- Nuestro trabajo ha consistido en revisar el informe de auditoría de las CCAA de la UPV/EHU, llevado a cabo por una firma externa, verificando su soporte en los papeles de trabajo de los auditores y realizando aquellas pruebas complementarias u otros procedimientos de auditoría que hemos considerado necesarios.
- Análisis financiero de la UPV/EHU.
- El alcance del trabajo no incluye un análisis sobre la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias detectadas se detallan en el epígrafe “Consideraciones sobre los sistemas de control interno y procedimientos de gestión”.

Además, el alcance del trabajo ha incluido la fiscalización del ejercicio 2018 de las fundaciones a las que la UPV/EHU ha aportado el 100% de la dotación fundacional, que son las siguientes:

- Fundación Museo Vasco de Historia de la Medicina y de las Ciencias.
- Fundación Cursos de Verano de la UPV/EHU.

Por otra parte, el anexo del Informe Económico incluye las CCAA de la Fundación Investigación Universidad Empresa, Jakintza Lanezko Ikerkuntza (Fundación Euskoiker). La UPV/EHU ha aportado el 50% de la dotación fundacional de la Fundación Euskoiker.

II. OPINIÓN

II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD

Personal

1. En 2018, la UPV/EHU ha abonado 588.881 euros en concepto de complementos y equiparaciones retributivas no contempladas en el RD 1086/1989, de 28 de agosto, sobre retribuciones del profesorado universitario (ver A.3).
2. El PDI con contrato laboral temporal a 31 de diciembre de 2018, supera el límite del 40% de la plantilla docente establecido en el artículo 48.5 de la LOU.

Contratación administrativa

3. El retraso en la licitación y adjudicación de nuevos contratos para determinados suministros y servicios, ha supuesto que en el ejercicio 2018 se hayan reconocido gastos por 5,6 millones de euros por contratos vencidos (ver A.14.1 y A.14.2).

Por otra parte, en un expediente de suministro con contrato en vigor en el ejercicio 2018, se han detectado gastos que exceden al importe adjudicado en 228.474 euros (ver A.14.1).

En opinión de este Tribunal, excepto por los incumplimientos descritos en los párrafos 1 a 3 anteriores, la UPV/EHU y sus Fundaciones han cumplido razonablemente la normativa legal que regula su actividad económico-financiera en el ejercicio 2018.

II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES

1. Debido a la falta de control de las múltiples aplicaciones presupuestarias que forman parte del remanente específico y sobre la finalización de los contratos de investigación (ver III.1), no se puede concluir acerca de la razonabilidad del mismo a 31 de diciembre de 2018. No obstante, de la revisión de una muestra de partidas y programas que lo componen, se concluye que algunas de ellas deberían ser consideradas remanente para gastos generales. En términos de contabilidad patrimonial, ello supone que una parte del saldo de la partida de balance “Deudas a corto plazo transformables en subvenciones” (ver A.11), por importe no cuantificable, debería formar parte del patrimonio neto.

